



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko abuztuaren 17an

62 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzeko. Behin betiko izendapena (34. or.).

---

**G saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera (2. or.)
- II.** Helburua (3. or.)
- III.** Norainokoa (3. or.)
- IV.** Iritzia (4. or.)
  - IV.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez (4. or.)
  - IV.2. Ondare-egoeraren agerpena (4. or.)
  - IV.3. Legezketasuna (4. or.)
  - IV.4. Erakunde autonomoak eta enpresak (4. or.)
  - IV.5. Kontuen Ganbararen aurreko txosteneko gomendioen jarraipena (4. or.)
  - IV.6. Egoera ekonomiko-finantzarioa (4. or.)
- V.** Finantza-egoerako orriak (6. or.)
  - V.1. Aurrekontuaren likidazioa. 1996ko ekitaldia (6. or.)
  - V.2. 1996-XII-31ko egoera-balantzea (7. or.)
  - V.3. 1996-XII-31ko emaitza-kontua (9. or.)
  - V.4. Diruzaintzako gerakinaren egoera, 1996 (9. or.)
- VI.** Analisia, ondorioak eta gomendioak (10. or.)

VI.1. Aurrekontuaren exekuzioari buruzko iruzkin orokorrak (10. or.)

VI.2. Gertakariak (10. or.)

VI.3. 1996ko abenduaren 31ko egoera ekonomikoa (10. or.)

VI.4. Kontuen Ganbararen aurreko txosteneko gomendioen jarraipena (12. or.)

VI.5. Bestelako iruzkin orokorrak (12. or.)

VI.6. Intereseko hainbat arlo zehatz (14. or.)

VI.7. Egoera-balantzea (21. or.)

VI.8. Hirigintza (22. or.)

#### **VII.** Erakundeak eta enpresak (23. or.)

VII.1. Erakundeak (23. or.)

VII.2. Enpresak (26. or.)

VII.3. Erruki Etxea (29. or.)

#### **Eranskinak:**

- 1.- 1996ko abenduaren 31ko organigrama (31. or.)
- 2.- Udalak aurkezturiko alegazio eta iruzkinak (32. or.)

#### **I. SARRERA**

Iruñea Nafarroako Foru Komunitateko hiriburu da, eta, 1996ko erroldaren arabera, 166.279 zuzenbidezko biztanle dauzka, nahiz eta errolda hori berrikusten ari diren. Dena den, bere eragina hurbil dauden hainbat herritara hedatzen da; horrela, guztira, 250.000 biztanle inguruko populazioa dago Iruña inguruan.

Udalak, bere jarduera burutzeko, honako erakunde eta entitate hauek dauzka:

- a) Erakunde autonomoak:
  - Haur-eskolak
  - Hirigintzako Gerentzia

b) Toki Enpresa Publikoak; euren sozietate-kapitalean udalak gehieneko partehartzea du.

- Comercios Minoristas de Pamplona, S.A. (Comiruña). Hemen, partehartzea ehuneko 100 da.

- Asociación Navarra de Informática Municipal, S.A. (ANIMSA). Hemen, partehartzea ehuneko 72 da.

- Mercados Centrales de Abastecimiento de Pamplona, S.A. (Mercairuña). Hemen, partehartzea ehuneko 51 da.

c) Toki Enpresa Publikoak; euren sozietate-kapitalean udalak partehartze txikia du.

- Oficina de Congresos de Pamplona Convention Bureau, S.A. Hemen, partehartzea ehuneko 30 da.

d) Fundazioak

- Iruñeko Erruki Etxea.

Azkenik, adierazi beharra dago uraren ziklo osoari eta hiri-hondakin solidoen tratamenduari dagozkien zerbitzuak Iruñerriko Mankomunitateak ematen dituela.

Udalaren zenbateko nagusiak laburbildurik agertzen dira jarraian:

	Exekutaturiko gastu-aurrek. (milioi pztan.)	Exekutaturiko dirusarrera-aurrek. (milioi pztan.)	Langileak
Udala	15.062	16.404	1.300
Udal Eskolak	431	452	100
Hirigintza Gerentzia	1.982	2.894	26*

\* H.A.P.O. idazteko aldi baterako kontratuak barnean hartzen ditu.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeari, Toki Ogasunak eraentzeko arauari buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzeko 84-XII-20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta 1996ko ekitaldirako Udalaren Gastu eta Dirusarrera Aurrekontuen exekuzioa fiskalizatu ditugu. Erakunde autonomoei eta menpeko enpresei dagokionez, gure helburua da lanbidedun independenteek eginiko auditoretzak aztertzea eta horien ondorio eta datu ekonomiko nagusien laburpena egitea.

Fiskalizaturiko toki-entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: Toki Ogasunak eraentzeko arauari buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Uztaila-

ren 2ko 6/90 Foru Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak eraentzeko uztailaren 2ko 7/85 Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak berrantolatzeko 1981eko ekainaren 8ko Arauak, berori garatzen duen 1981eko abenduaren 17ko erregelamenduak eta Nafarroako Toki Enteei orokorrean aplikatzekoa den gainerako araudiak.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Udalaren 1996ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta exekuzioa.

b) 96-XII-31 ko ondare-egoeraren agerpena, eskuarki onarturiko kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Udalaren eta berorren menpeko erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioak legezkotasun printzipioarekiko egokitasuna.

d) Udalaren egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n.

e) Nafarroako Kontuen Ganbarak 1993ko ekitaldiari buruzko bere azken fiskalizazio-txostenean egindako gomendioen betetze-maila.

## III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Iruñeko Udalaren fiskalizazioa egin du, 1996ko ekitaldiari dagokiona.

Iruñeko Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarria dauka, eta bere kontuetan agertzen ditu honako menpeko erakunde eta enpresa hauen kontabilitateko egoera-orri ikuska-tuak: Haur Eskolen Patronatua, Comiruña, Mercairuña, Animsa eta Iruñeko Erruki Etxea. Hirigintza Gerentziari buruzko datuak kontuetan sartzen ez diren arren, gure lana egiten ari ginen bitartean erakunde horretako kontuak eta kontu-ikuskaritza gure eskuetan jarri zizkiguten.

Udalaren gain eginiko lanak dirusarrera eta gastuen kontzeptu ekonomikoak eta abenduaren 31ko egoera-balantzea ikuskatu ditu, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolari buruzko gaiak aztertu ditu.

Hirigintzari dagokionez, gure lanak Plan Orokorren exekuzioari buruzko azterketa orokorra egitea izan du arduragai, hori exekuzioan buruturiko jarduketa zehatzak berrikusi gabe.

Auditoretza egiten ari zaien enpresa eta erakundeei dagokionez, gure lana eginiko auditoretzen azterketa egitera zuzendu da, ondorio eta datu ekonomiko nagusien laburpena edukitzeko. Hirigintza Gerentziari dagokionean, lan handiagoa

egin zen, erakunde horren kontuak uzteko berandutzen ari zirela ikusirik, eta sakondu egin zen datu ekonomikoetan, baita espediente-lagin bat ikuskatu ere. Ondorioak VII. epigrafean aurkezten dira: erakundeak eta enpresak.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipioei eta araei jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu da lana.

Txosten honetan daude Iruñeko Udalaren eta bere erakundeen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta ekonomia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Zelaiko lana 1997ko uztailetik azarorako epean burutu zen.

Udaleko eta bere erakundeetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman ditugun laguntzarengatik.

#### IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Iruñeko Udalaren 1996ko ekitaldiko kontabilitateko egoera-orriak aztertu ditugu.

Gure azterlanean Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritza egiteko onetsiriko arau eta prozedurak erabili ditugu.

Eginiko ikuskapenetik abiatuz, honako iritzi honetara iritsi gara:

##### IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

1996ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak modu egokian agertzen ditu eginiko jardura eta 1996ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera, garrantzitsuak diren puntu guztietan, eta indarreko legediari jarraituz prestatu da.

##### IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Udalak lan-multzo bati ekin dio zordunen, fidantzen eta gordailuen saldoak bereiztu edo garbitzeko eta ibilgetuaren eta inbentarioaren kontabilitate-baloreak adosteko. Gaur egungo pentsio-ereduaren ondoriozko betebeharrak aktuarialak ez dira zenbatetsi.

Udalaren balantzeak modu egokian agertzen du udalaren egoera ekonomiko-ondarezkoa, aurreko lerroaldean adierazitakoak izan lezakeen eragina alde batera utzita.

##### IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Iruñeko Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutzen da, nahiz eta adierazi beharra dagoen 1996an ez dela kontuhartzaitza-lanik egin ez erakunde autonomoetan ezta langile- eta dirusarrerera-esparruetan ere.

##### IV.4. ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ENPRESAK

Kapitalaren zatirik handiena udalarena duten enpresek aurkeztu dituzte lanbidedun independenteek ikuskaturiko kontuak. Horien iritzia aldekoa izan da Mercairuña eta Comiruñaren kasuetan; ANIMSAri dagokionean, berriz, iritzi horrek salbuespenak izan ditu, sozietatea jasaten ari zen egoera zailaren ondoriozkoak, batez ere.

Erakunde autonomoek ere lanbidedun independenteek eginiko kontu-ikuskaritza daukate. Haur Eskolei dagokienean, salbuespen bat agertzen dute, Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorriari (KPPO) egokitzearen ondorioz irizpidealdaketa izan delako. Gerentziari dagokionean, salbuespen bat agertzen du, BEZaren ondoriozko gorabehera fiskal bat dela-eta.

Hirigintza Gerentziari dagokionean, azpimarratu beharrekoa da legezketasunaren ikuspegitik beharrezkoa dela kontratazioaren formako alderdian zorrotasun handiagoa egotea eta poligonoetan eginiko obrak likidatzea, diruzaintzako gerakina eta horren osaera "obrei loturikoaren eta orokorraren artean banatua" zehazki jakiteko. Datu hori zehazki ezagutzeak udal dirulaguntza jasotzeko premia balioestea ahalbidetuko du. Dirulaguntza hori, 1996an, 293 milioi pezeta izan zen.

##### IV.5. KONTUEN GANBARAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke 1993ko ekitaldiari buruzko txosteneko gomendioetako asko, administrazio- eta kontabilitate-izaerakoak, kontuan hartu direla, nahiz eta ondoko epigrafean adierazitakoak oraindik bete gabe geratu.

##### IV.6. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Iruñeko Udalaren 96-12-31ko egoera ekonomiko-finantzarioa ahula da: Saneamenduari buruzko Legea aplikatu den arren, azken hamar urteotan ez du aurrezpen garbi positiboa eskuraterik lortu; dena den, azkeneko ekitaldian magnitude horren zenbateko negatiboa txikia da eta zorpe-tze-mailak behera egin du.

Saneamenduari buruzko Legea aplikatzearen ondorioz 1989 eta 1996 artean jasotako ekarpena 7600 milioi baino gehiago da.

Saneamenduari buruzko Legea 1997an hiriburutzari buruzkoak ordeztu zuen, egoera hori konpontzen saiatzeko.

Laburbilduz, **ondorio nagusi gisa**, esan dezakegu administrazio-jarduera modu arrazoizkoan egin dela, aurreko auditoretzaz geroztik hobekuntza nabaria izan dela eta egoera ekonomiko-finantzarioa ahula dela.

Gure aburuz, udalak honako jarduketa hauei ekin beharko lieke:

#### **A) Antolamenduaren, administrazioaren eta kontabilitatearen ikuspegitik**

- Programetan antolaturiko aurrekontua ezartzeari dagokionean, aurrera egitea, programa guztien helburuak garatuz eta zenbatetsiz, horietarako adierazleak prestatuz eta udalaren kontuetan programetan antolaturiko aurrekontu-exekuzioa sartuz, hala kontabilitateari nola helburuak erdies-teari dagokionean.

- Bateriauriko egoera-orriak prest edukitzeko prozesuei ekitea; horrek lagundu egingo luke udalaren jarduera guztiaren eta egoera ekonomikoaren ikuspegi orokorra edukitzen. Alde handia dago Udalaren egoera ekonomikoaren eta Hirigintza Gerentziaren artean, azken horrek diruzain-

tza-soberakinak eta aurrekontu-superabita baitauzka, zati handi bat lotuta eduki arren.

- Kontuhartzailtza-eginkizunari bultzada ematea nomen, dirusarreraren eta erakunde-kontrolen sailetan.

- Baldin eta dirusarrera batzuetan, tarte bat igaro ondoren, likidaturiko eskubideen deuseztatketak eta preskripzioak badaude, dirusarrera horien kudeaketa berrikustea, prozedurak hobetzeko eta ahal den heinean doiketa horiek murrizteko.

- Erosketa Batzorde bat ezartzeko prozesuari ekitea, udalaren erosketa amankomunak kudea ditzan eta, hala bada, gainontzekoetarako aholkularitza eta koordinazioaz arduratu dadin.

#### **B) Egoera ekonomikoaren ikuspegitik**

- Gastuak murrizteko edo dirusarrerak gehitzeko egon litezkeen ekimenak aztertzea, udal jarduerak aurrezpen garbi positiboa sor ahal izan dezan, inbertsio plana ezarri ahal izateko.

- Udal zerbitzu ezberdinen eraginkortasun eta kostu azterketa alderatuak burutzea, jarduketa horiek aldatzeko aukerak balioetsi ahal izateko.

Laburbilduz, eta egoera ekonomikoaren ondorioz, uste dugu egoki dela Iruñeko Hiriko Plan Estrategikoa izatea, epe ertaineko helburu nagusiak finkatu eta horiek betetzeko aurreikusiko diren jarduketak markatzeko.

**V. UDALAREN FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK****V.I. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA. 1996KO EKITALDIA.**

(milioi pezetatan)

Dirusarrerren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Likidaturiko eskubideak	Dirubilketa garbia	Kobra- tzeke	exekuzio- aren %
1- Zuzeneko zergak	3.345	0	3.345	3.340	3.039	301	100
2- Zeharkako zergak	1.481	0	1.481	1.547	1.343	204	105
3- Tasak eta bestelako dirusarrerak	1.482	10	1.492	1.537	1.338	199	103
4- Ohiko transferentziak	7.817	320	8.137	6.703	5.711	992	82
5- Ondare dirusarrerak	99	0	99	138	134	4	139
6- Inbertsio errealak besterentzea	1.263	0	1.263	466	466	0	37
7- Kapital transferentziak	204	0	204	259	57	202	127
8- Aktibo finantzarioak	211	0	211	196	134	62	93
9- Pasibo finantzarioak	633	0	633	2.218	1.068	1.150	350
<b>Dirusarrerak, guztira</b>	<b>16.535</b>	<b>330</b>	<b>16.865</b>	<b>16.404</b>	<b>13.290</b>	<b>3.114</b>	<b>97</b>

(milioi pezetatan)

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Likidaturiko betebeharrak	Ordainketa garbiak	Ordain- tzeke	exekuzio- aren %
1- Langileen gastuak	6.275	240	6.515	6.493	6.446	47	100
2- Ohiko ondasun eta zerbitzu gastuak	5.013	110	5.123	4.525	3.092	1.433	88
3- Gastu finantzarioak	443	-30	413	278	228	50	67
4- Ohiko transferentziak	1.377	80	1.457	1.413	637	776	97
6- Inbertsio errealak	2.531	-70	2.461	1.477	266	1.211	60
7- Kapital transferentziak	90	0	90	86	67	19	96
8- Aktibo finantzarioak	204	0	204	188	186	2	92
9- Pasibo finantzarioak	602	0	602	603	603	0	100
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>16.535</b>	<b>330</b>	<b>16.865</b>	<b>15.063</b>	<b>11.525</b>	<b>3.538</b>	<b>89</b>

## V.2. 1996-12-31KO EGOERA-BALANTZEA

## AKTIBOA

Izena	Kopurua (milioi pezetatan)	
	1995	1996
<b>IBILGETU MATERIALA</b>	<b>23.730</b>	<b>23.940</b>
Lurrak eta berezko ondasunak	8.522	9.173
Eraikinak eta beste eraikuntzak	14.397	14.041
Makinak, instalazioak	37	56
Garraio-materialak	183	204
Altzariak	52	27
Informazio-prozesuetarako ekipoak	339	196
Bestelako ibilgetu materiala	200	242
<b>IBILGETU INMATERIALA</b>	<b>7</b>	<b>40</b>
Bestelako ibilgetu inmateriala	7	40
<b>AZPIEGIT. ETA ERABILERA OROK. ONDASUNETAKO INBER.</b>		<b>310</b>
Ondare historikoa		310
<b>ALOR PUBLIKOKO INBERTSIO FINANTZARIOAK</b>	<b>1.468</b>	<b>1.469</b>
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	1.460	1.461
Eraturiko fidantzak eta gordailuak	8	8
<b>ZORDUNAK</b>	<b>4.071</b>	<b>5.025</b>
Ohiko aurrekontuko zordunak	1.479	3.114
Aurreko ekitaldietako aurrekontuetako zordunak	2.536	1.853
Urbanizazio-kuoten zordunak	22	22
Bestelako zordunak	34	35
<b>KONTU FINANTZARIOAK</b>	<b>218</b>	<b>1.151</b>
Kutxa	3	8
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	9	0,2
Bankuak eta kreditu-erakundeak	196	1.133
Justifikatu beharreko zordunak	10	10
<b>APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK</b>	<b>6</b>	<b>61</b>
Aplikatzeko dauden kontusailak	6	61
<b>BIDEAN ETA ERREGULARIZATZEKE DAUDENAK</b>	<b>-833</b>	
Bidean	-243	
Erregularizatzeke	-590	
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>28.668</b>	<b>31.994</b>

## PASIBOA

Izena	Kopurua (milioi pezetatan)	
	1995	1996
<b>ONDAREA ETA ERRESERBAK</b>	<b>16.115</b>	<b>16.587</b>
Ondarea	12.901	15.778
Erabilera orokorreko ondarea		-2.134
Erreserbak	363	
Aurreko ekitaldietako emaitzak	2.851	2.943
<b>KAPITAL DIRULAGUNTZAK</b>	<b>2.381</b>	<b>2.592</b>
Kapital dirulaguntzak	2.381	2.592
<b>EPE ERTAIN ETA LUZEKO ZORRAK</b>	<b>3.459</b>	<b>5.077</b>
Alor publikoko maileguak	2.913	2.401
Entitate pribatuen maileguak	546	2.676
<b>EPE LABURREKO ZORRAK</b>	<b>4.832</b>	<b>6.477</b>
Aitorturiko betebeharren hartzekodunak. Ohiko aurrekontua	2.689	3.538
Aurreko urteetako hartzekodunak: P.O.	72	23
Aurreko urteetako hartzekodunak: PP.II.	0,08	
Bestelako hartzekodunak	371	23
Ente publikoak	362	358
Fundazioak	0,16	0,01
Epe laburrean jasotako fidantza eta gordailuak	439	535
Diruzaintza-maileguak	900	2.000
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>93</b>	<b>-105</b>
Ekitaldiko emaitza	93	-105
<b>APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK</b>	<b>1.788</b>	<b>1.366</b>
Formalizatu gabe dauden dirusarrerak	987	565
Urbanizazio-kuoten dirusarrerak	789	789
Aplikatzeko dauden beste kontusailak	12	12
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>28.668</b>	<b>31.994</b>



## V.3. EMAITZA-KONTUA, 96-12-31n

(mila pezetatan)

GASTUAK			DIRUSARRERAK		
	1995	1996		1995	1996
Langileak	4.573.847	4.988.572	Salmentak	1.586.595	1.765.702
Finantzarioak	328.751	278.007	Ondarekoak	215.246	252.324
Zergak	35.253	11.836	Errentaren eta ondasunaren g. zergak	3.459.450	3.716.561
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	3.906.467	4.447.574	Ohiko transferentziak	6.195.505	6.687.958
Gizarte-prestazioak	1.514.472	1.577.267	Kapitalaren g. zerga	391.290	276.386
Ohiko transferentziak	1.209.776	1.413.495	Bestelakoak	287.398	252.859
Kapital transferentziak	89.100	85.979	Ekoizpenari loturiko zergak		354.737
Ekitaldiko ohiko emaitza	477.817	503.796			
Orain artekoa, guztira	12.135.483	13.306.527	Orain artekoa, guztira	12.135.483	13.306.527
Aurreko ekitaldiko eskubideen aldak.	589.473	655.668	Aurreko ekitaldiko betebeharren aldak.	205.384	47.148
Baloreen kartera	1.228		Ohiz kanpoko emaitza	385.317	608.520
Guztira	12.724.956	13.962.194	Guztira	12.726.184	13.962.194

(mila pezetatan)

Laburpena	1995	1996
Ekitaldiko ohiko emaitza	477.817	503.796
Ohiz kanpoko emaitza	385.317	608.520
Ekitaldiko emaitza	92.501	-104.724

## V.4. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA, 1996AN

Kodea	Kontuak	Zenbatekoak (milioi pezetatan)
1	(+) EKITALDIAREN BUKAERAN KOBRATZEKE DAUDEN ZORDUNAK	3.802
	Dirusarrera-aurrekontukoak. Ohiko aurrekontua	3.114
	Dirusarrera-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	1.856
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	71
	Ken kobratzeko zalantzan dauden saldoak	-692
	Ken aplikatzeke dauden dirusarrera burutuak	-548
2	(-) EKITALDIAREN BUKAERAN ORDAINTZEKE DAUDEN HARTZEKOD.	6.468
	Gastu-aurrekontukoak. Ohiko aurrekontua	3.538
	Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	23
	Dirusarreraren aurrekontukoak	17
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	2.521
	Hartutako fidantza eta gordailuetakoak	375
	Ken aplikatzeke dauden ordainketa burutuak	-5
3	(+) DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK EKITALDIAREN BUKAERAN	1.138
	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GERAKINA (1-2+3)	-1.527
	(+) ERROTULUEN ZERGAREN EPAIA	6
	DIRUZAINZTA-GERAKINA, GUZTIRA (NEGATIBOA)	-1.533
4	ATXIKITAKO DIRUZAINZTA-GERAKINA	96
5	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GERAKINA	-1.629
	DIRUZAINZTA-GERAKINA, GUZTIRA (1-2+3)/4+5)	-1.533

## VI. ANALISIA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren aurkeztuko ditugu Udalaren antolamendua eta barne kontrol sistema, eta ondorioz, kudeaketa hobetzeko egokitzat jo ditugun gomen-dio eta ondorio orokorrak.

### VI.1. AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

Iritziaren gaineko IV. atalean esandakoa kontuan hartuz gero, hurrengo aldeak azpimarratuko ditugu, aurrekontuaren exekuzioari dagokionean.

1995eko abenduaren 29an onetsi zuten 1996ko ekitaldiko aurrekontua. 1997ko abuztuaren 29ko Osoko Bilkurak onetsi zuen haren likidazioa, arauk ezarritako izapideak eta gero.

Exekuzioaren maila ehuneko 89 izan da gastuetan eta ehuneko 97 dirusarreretan. Exekuzio-mailarik apalenak inbertsioen kapituluetan gertatu dira, ehuneko 60arekin, eta inbertsioen besterentzean, ehuneko 37arekin.

Aitorturiko dirusarrerak 16.404 milioi jotzen dute, eta gastuek 15.062 milioi. Doitu gabeko emaitza, beraz, 1.342 milioi da, eta finantzaketadesbideraketen doiketen ondoren, 1.336 milioi. Pasibo finantzarioen aldaketak hartzen dituen IX. kapituluko dirusarreraren gehikuntza handiari eta inbertsioen exekuzio-maila apalari zor zaie, funtsean, emaitza hori. Aurrekontu-superabit hori 850 milioiko finantzaketa-defizit bihurtzen da, kontuan hartzen baditugu dirusarrera finantzarioen (zorra) eta Saneamenduari buruzko Legearen aportazioaren zenbateko garbia.

Gastuen kapituluei bagagozkie, berriz, langileena da garrantzizkoena: 6.493 milioi dira eta aitorturiko betebeharren ehuneko 43 egiten du; ondoritik dator ohiko ondasunen erosketarena, 4.525 milioi eta buruturiko gastuaren ehuneko 30. Inbertsioek exekuzioaren ehuneko 10 egiten dute.

Dirusarreraren kapituluaren artean, ohiko transferentzienak 6.703 milioi egiten du eta likidaturiko eskubideen ehuneko 41 da. Ondoren, zuzeneko zergena ehuneko 20rekin. Hurrengo kapitulurik garrantzitsuena pasibo finantzarioen aldaketarena da, 1996an burutu denaren ehuneko 14a.

Azpimarratu behar da pasibo finantzarioen aldaketak hartzen dituen IX. kapituluaren gertatzen den desbideraketa, exekuzio-maila ehuneko 350 izan baita, 1995eko abenduan zegoen 2.215

milioiko diruzaintza-gerakin negatiboa finantzatzeko hartu behar izan diren zenbateko bereko maileguren ondorioz, hain zuzen.

### VI.2. GERTAKARIAK

Ezinezkoa da gertakarien ondorioz Iruñeko Udalak dituen arriskuen balioespenik egitea.

Langileen arloko errekurtsioak VI.6.1 atalean aipatzen dira.

Udalak eman duen informaziotik ateratzen denaren arabera, arriskurik handiena bi kontzeptutan gertatzen da: hirigintza probetxamenduen transferentziengatik (TAUS direlakoak) dirusarreretan eta publizitatearen gaineko zergaren ondoriozkoetan.

Lehenengoari dagokionean, Nafarroako Gobernuak jarri zituen zalantzan, 1995ean, hirigintza probetxamenduen transferentzien prozeduraren aplikazioaren legezkotasuna. Nafarroako Auzitegi Nagusiak hainbat epai kaleratu du berrikitan horri buruz eta adierazi du kontsolidatuko erakinetan ateratzen direnak itzul daitezkeela, baina ez eraikuntza berrien ondoriozkoak.

Epaien ondorioz itzuli behar denaren lehenengo zenbatespenek 650 milioi egiten dute, gutxi gorabehera.

Publizitatearen gaineko zergaz denaz bezainbatean, sorburua "Nafarroako Toki Ogasunen erreformari buruzko Arau"an datza. Errekurtsio asko jarri dira zerga 1988an ezarri zenetik, eta epaiak kontraesankorrak dira, epaitegien irizpideak aldatuz joan direlako.

Hori dela eta, ezin da epai-izapide osoaren azken emaitza baloratu.

Beste alde batetik, bi errekurtsio horien emaitza udal ogasunaren kalterako balitz, aztertu egin beharko litzateke defizit hori sortzapena gertatu zen urteari egotz ote dakiokkeen, eta ondorioz, garai hartan indarrean zen Saneamenduari buruzko Legearen eraginik izango ote lukeen.

Laburbilduz, beraz, epaitegietan bi arazo gaitz eta nahasi daudela aipa daiteke, zenbatesten oso zailak.

### VI.3. EGOERA EKONOMIKOA

Ondoren aurkeztuko ditugu hainbat lauki udalaren bilakaera ekonomikoa adierazteko, 1987tik aitzina.

	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996
Gastuak, guztira	7.255	7.935	9.286	10.213	11.585	12.189	13.652	13.160	13.689	16.404
Ohiko dirusarrerak (1-5 kap.)	6.726	6.965	8.996	9.859	11.140	11.552	11.868	11.690	12.172	13.265
Funtzionam.-gast. (1,2,4 kap.)	5.870	6.200	7.366	8.135	9.556	9.538	10.268	10.593	11.232	12.431
Aurrezki gordina	856	765	1.630	1.724	1.584	2.014	1.600	1.097	940	834
Aurrezki garbia	(431)	(789)	(45)	(44)	(117)	(155)	(342)	(159)	(195)	(47)
Zorpetze-maila*	%19'1	%22'3	%18'6	%17'9	%15'2	%18'8	%16'4	%10'7	%9'3	%6'6
Zorpetze-muga**	%12'7	%11	%18'1	%17'5	%14'2	%17'4	%13'5	%9'4	%7'7	%6'3
Pasiboen aldaketak	283	383	791	978	1.032	1.549	1.472	942	806	603
Korrituak	1.004	1.171	884	790	669	620	470	314	329	278
Zama finantzarioa, guztira	1.287	1.554	1.675	1.768	1.701	2.169	1.942	1.256	1.135	881
Epe luzeko zorra, guztira	8.437	10.575	9.729	8.802	7.769	6.225	4.796	4.251	3.459	5.077

	1995			1996		
	Zenbat	Milioiak	Pta./bizt.	Zenbat	Milioiak	Pta./bizt.
Biztanleak	181.776		-	166.279		
Zerga-dirusarrerak		5.735	31.550		6.424	38.633
Ohiko dirusarrerak		12.172	66.960		13.265	79.780
Ohiko gastuak		11.232	61.790		12.431	74.760

$$* \text{ Zorpetze-maila} = \frac{\text{Zama finantzarioa (3 eta 9 kap.)}}{\text{Ohiko dirusarrerak (1-5)}} \times 100$$

$$** \text{ Zorpetze-muga} = \frac{\text{Ohiko dirus. (1-5 kap.)} - \text{Funtz. gastuak (1,2,4)}}{\text{Ohiko dirusarrerak (1-5)}} \times 100$$

Laukiko datuetatik atera daitekeenez, aztertutako urteetan, aurrezki gordina, hau da ohiko dirusarrera eta gastuen arteko aldea, ez da nahikoa zama finantzarioa finantzatzeko, eta horren ondorioz aurrezki garbi negatiboa gertatu da.

Era berean, zorpetze-maila zorpetze-muga baino handiagoa izan da, urte horietan guztietan.

Azken urteotako adierazleen hobekuntza ikusten den arren, alegia, zorra gutxitzea, zorpetze muga eta maila hurbiltzea eta zama finantzarioa gutxitzea..., Iruñeko Udalak, 1996ko ekitaldian, ezin zuen oraindik bere ohiko gastuak eta zama finantzarioa bere ohiko dirusarrerekin berdindu,

Saneamenduari buruzko Legearen dinamika beragatik, udalak dioen bezala.

Hori zela eta, eta Mendillorri sortutako urbanizazioa etorkizunean Iruñeko udalean sartu behar zenez, "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria" ezarri duen Foru Legea onetsi zuten 1997an. Udalarentzako finantzaketa-sistema berria ezarri du hark, Saneamenduari buruzko Legearen ondoriozkoaren orde. Haren helburua da "aurrekontu likidazioan halako aurrezki gordin bat sortaraztea non Nafarroako gainerako toki entitateek duten zorpetze batez bestekoaren mailarekin finantzatzeko moduko inbertsioak egin ahal izanzen dituen".

1.800 milioi jotzen dute aipatu legearen ondoriozko dirusarrerak 1997ko urtean.

Lege berri honen aplikazioaren emaitzen mende dago, hein handi batean, Nafarroako hiriburuko udalaren etorkizun ekonomikoa, hori gauzak berez dakarrena da.

Udaleko teknikariek adierazi digutenaren arabera, Hiriburutza Legea 1997an aplikatzeak azken urteotako joera aldatzeko bidea eman du eta aurrezki garbi positiboa lortzea eta zorpetze-maila mugaren azpitik jartzea ekarri du.

Etorkizuneko zama finantzarioa aztertuz gero, 1999ko ekitaldia gako-urtea izanen dela ikus daiteke, 2.000 milioi pezeta baino gehiago jotzen duten maileguren epe-muga betetzen delako. Urte horretako zama finantzarioa nabarmentzea dakar horrek, gainerako urteetakoekin alderatuz gero.

Udal teknikariek badituzte gai horiek guztiak aztertzeko behar diren azterlanak eta uste izatekoa da beharrezko irtenbideak proposatuko dituztela udalaren etorkizun ekonomikoari aurre egiteko.

Udalaren egoera finantzarioa ez dator Hirigintza Gerentziak duenarekin bat, diruzaintza-gaioekin baititu, 2.157 milioi aldi baterako inbertsio finantzarioetan, eta aurrekontu-superabita atera du, hein handi batean atxikita badago ere.

Udalaren kontuak erakunde autonomoenekin eta gehien bat udalaren partaidetza duten enpresenekin bateratzeak, udal jardueraren osotasunaren eta egoera ekonomikoaren guztizko ikuspegia erraztuko luke.

Egoki deritzogu Iruñeko Plan Estrategikoa izateari, hiriaren helburuak jarri eta horiek betetzeko jarduketak markatzeko. Plan horren lehen urratsa, dena den, hauxe jakitean datza: gaur egun hiriarentzat bakarrik egin ote daitekeen plana edo bere inguruko eremua, Iruñerria, hartu behar ote duen.

#### VI.4. KONTUEN GANBARAREN AURREKO TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Aurreko txostenean egin ziren izaera administratiboko gomendioak bete egin direla esan daiteke, oro har. Hartara, ondorengoak burutu direla esan dezakegu: prozedurari buruzko eskuliburuak egitea, kontabilitate-aplikazioaren garapena, prezio publikoak eta tasak ezartzeko kostu-azterketak, plantila organikoaren eta lanpostuen zerrendaren onespina, "gastu proiektu"en modulua hastea, zergen azterketa, berdinkatze eta egokitzak, kontratuei buruzko legearen aplikazioa, eta abar.

Badira zintzilik geratu diren arloak, hala ere:

- Erakunde autonomoetan eta udalean kontuhartzen ez diren alorretan kontrol sistemak ezartzea (kontuhartzaitza). VI.5.3. atalean iruzkinduko da kontuhartzaitza.

- Zordunak garbitzearekin jarraitu eta eskubi-deuseztapenak eta preskripzioak gertatzeko arazoak aztertzea.

- Ibilgetuaren kontabilitate-balioen eta inbentarioko en doiketa eta berdinkatzearekin jarraitzea.

- Programakako aurrekontuarekin jarraitzea, helburuak ez ezik, adierazleak ere sartuz programa guztietan eta programen aurrekontu-likidazioa aurkeztuz.

#### VI.5. BESTELAKO IRUZKIN OROKORRAK

##### VI.5.1. Antolamendu orokorra

Organo orokorrez landa (osoko bilkura, gobernu-batzordea eta alkatetza), udal-antolamendua hurrengo arloetan garatzen da:

- Zerbitzu Orokorrak
- Alkatetza Kabinetea
- Ekonomia
- Hiri planeamendua
- Obra eta azpiegiturak
- Alde Zaharra, hiri altzariak eta berdeguneak
- Osasun eta Ingurugiroa
- Gizarte Zerbitzuak
- Kultur Gaiak
- Hezkuntza eta Kirola
- Hiritar Babespena

Alor bakoitzaren egitura hierarkikoa ondoren aipatzen den eskemaren arabera da, oro har, goi-mailetan:

Zinegotzi delegatua.....Alorreko zuzendaria.....Idazkari teknikoa

Alkatearen hainbat dekreturen bidez arautu da udal funtzionamendua eta 1997ko azaroan onetsi dute Erregelamendu Organikoa.

##### VI.5.2. Kontabilitate- eta aurrekontu-sistema

Iruñeko Udalak ezarria du Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, toki administrazioari egokitu.

Baditu aurrekontua exekutatzeko oinarriak eta bere zerga-dirusarrerak kudeatu eta biltzeko orde-

nantzak onetsi ditu. Ekitaldiaren itxiera egiteko arauak ere eman zituen 1996an.

Administrazio-prozesu nagusiak egiteko prozedura-eskuliburuak lantzeari ekin diote. Ildo horretatik, gaur egun badituzte ia-ia jarduera guztietarako eskuliburuak ekonomia-alorrean, kudeaketa-txostenetan, diruzaintzaren egoeretan, eta abar; eta baita tributuo- eta zerga-kudeaketan, tasetan, eta abarretan ere.

Beharrezko kostu-azterketak egin ditu tasen eta prezio publikoen zenbatekoa ezartzeko 1997an, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen lehen xedapan iragankorrekarekin bat.

Aurrekontu-sistema dela-eta, esan behar da dirusarrerai buruzkoa sailkapen ekonomikoaren arabera aurkeztu eta exekutatzen dela; udaleko gastuen aurrekontuak, ordea, sailkapen organiko, funtzionala eta ekonomikoa biltzen ditu.

Programa multzoa ezarri da alor bakoitzean, programei egotz dakizkiekeen gastuak zehaztuz, sailkapen ekonomikoaren ikuspuntutik. Hona alor bakoitzeko programen zenbatekoa eta aurrekontua, milioi pezetatan azken hori:

Alorra	Zenbat programa	Aurrekontua
Zerbitzu orokorrak	13	3.055
Alkatetza kabinetea	4	327
Ekonomia	11	1.573
Hiri planeamendua	5	1.271
Obra eta azpiegiturak	10	2.640
Alde Zaharra, hiri altzariak eta berdeguneak	3	1.268
Osasun eta ingurugiroa	12	587
Gizarte zerbitzuak	15	893
Kultur gaiak	7	881
Hezkuntza eta kirola	12	2.011
Hiritar babespena	15	2.029
<b>Guztira</b>	<b>107</b>	<b>16.535</b>

Programa bakoitzean definitzen dira haren helburuak, garapen maila ezberdinarekin. Zenbatespenik gabe daude, gehienetan. Aurreko helburuak noraino erdiesten diren ebaluatzeko adierazlerik ez dago, oro har.

Aurreko laukiko datuetan ikusten denez, programa asko dago eta 154 milioi da batez besteko aurrekontua. Programez baino, proiektuez mintza gaitzkeela erakusten digu horrek.

Aurrekontu-likidazioak ez du programakako likidazioa hartzen, eta helburuen exekuzio-maila ez da erasotzen.

### VI.5.3. Kontuhartzailletza

Iruñeko Udaleko fiskalizazio edo kontuhartzailletza lana erregulatzen duten arauak ditugu, Nafarroako Administrazioari eta Toki Ogasunei buruzko legeez gain, 1993ko abuztuaren 27ko Osoko Bilkurak erabakitakoak eta aurrekontua exekutatzeke 73. eta 77. bitarteko oinarriak.

1996an zehar, bi laguntzailek, erdi mailako hiru tituludunek eta kontuhartzailletza burutu dute lana. 1997tik aitzina, goi mailako teknikaria ere izan dute.

Kontuhartzailletzak ez ditu langileentzako ordainketak, dirusarrerak eta erakunde autonomoak aztertzen.

Arloek beraien espedienteak bidaltzen dizkiote Kontuhartzailletzari, azter ditzan. Haren funtsezko lana da aurreko kontuhartzailletza mugatua deritzana.

Espedienteak pilatzen diren garaietan, ekain-abenduan alegia (ikus transferentziei buruzko VI.6.4 atala), kontuhartzailletza-arazoak izaten dira eta, askotan, epearen barruan ezin direnez aztertu, arloetako arduradunek kendu egiten dituzte espedienteak gastuari ekiteko.

Arloen, kontuhartzailletzaren eta exekuzio-oinarrien arteko zatiketa gehiegizkoa denez, eta espedienteen tramitazioaren beraren ondorioz, oharkizun gehiegi egin zaizkie 1996an zehar osoko bilkurara ebazteko eramaten diren espedientei.

Beste alde batetik, oharkizun kopuru gehiegizko hori kaltegarri gerta daiteke garrantzizko oharkizunak daudenean, denak pareka daitezkeelako. Udal unitateen arteko komunikazio hobeak, eta arloek espedienteak hobeto prestatzeak oharkizunak gutxitzea ekarriko luke, batez ere, interpretatzeko irizpide ezberdinak izateari dagokionean, edota zer kontusaili egotzi behar zaionari buruzkoan, esate baterako. Lan-zama asko arinduko luke horrek.

1997ko ekitaldian, fiskalizatze-lanaren ondorioz, hein batean, espedienteen kudeaketa dezentte hobetu dela ikusten da eta unitateen arteko koordinazio hobeak, kontuhartzailletza lana errazteraino.

Horiek horrela, hauxe gomendatzen dugu:

- Arloen eta kontuhartzaitzaren arteko koordinazio handiagoa, espedienteak hobeto egiteko eta *oharkizunak saihesteko*.

- *Fiskalizatu gabeko jardueren kontuhartzaitzari ekiteko plana ezartzea. Horri buruz esan digute beste pertsona bat sartu dutela 1998an langileen gastuen eta erakunde autonomoen fiskalizazioari ekiteko. Hori dela-eta, komenigarri litzateke hauxe aztertzea: dauden baliabideak ikusita, ea fiskalizazio maila altuagoa erdiets daitekeen bestelako antolaketa-sistemarekin.*

- *Ahal den neurrian, jarduketan eraginkortasuna eta ekonomia baloratzeko lanei ekitea, kostuak, helburuak betetzea, eta abar, aztertuz. Orobat, udal ogasunarentzako ondorioak aztertzeo ikerketa ekonomikoak egin ondoren ezartzea jarduera berriak. Hala bada, azterlan horiek burutzea.*

## VI.6. INTERESEKO HAINBAT ARLO ZEHATZ

### VI.6.1. Langileen ordainketak

Hona langileen gastuen banaketa 1996ko ekitaldian:

	(milioi pezetatan)
	Aitor daitezkeen betebeharrak
Goi karguak	68
Funtzionarioak	3.236
Lan kontratudunak	965
Gizarte kostu eta gastuak	2.224
<b>Guztira</b>	<b>6.493</b>

Aurrekontu guztiaren ehuneko 43 egiten dute langileen gastuen kapituluari aitortu diren betebeharrak. Exekuzio-maila %100 izan da. Ehuneko 7,8ko gehikuntza ageri du 1995eko ekitaldiarekin konparatuz gero.

Eranskinean ikus daiteke Osoko Bilkurak 1995eko abenduaren 29an onetsi zuen 1996rako plantilaren organigrama laburtua. Hona lanpostuak, arloka:

	Zenbat	%
Udaltzainak	390	30
Hezkuntza eta kirola	259	20
Obra eta azpiegiturak	134	10
Alde Zaharra	126	9
Osasuna	90	7
Zerbitzu orokorrak	82	6

Ekonomia	73	6
Gizarte zerbitzuak	66	5
Kultur gaiak	35	2
Planeamendua	28	2
Hiritar babespena	28	2
Alkatetza kabinetea	13	1
<b>Guztira</b>	<b>1.324</b>	<b>100</b>

1.324 lanpostu horietatik 108 dira lan kontratukoak.

Plantila guztian 349 lanpostu daude bete gabe. Horietatik 98k dute postu-erreserba.

Iruñeko Udalak badu bere tarama. Hurrengo pentsioak ordaindu ditu 1996an:

Kontzeptua	Zenbat	Kopurua (milioi ptatan)	Batez b. kopurua (milioi ptatan)
Jubilazioa	450	1.092	2,4
Alarguntza	268	417	1,6
Zurztasuna	123	143	1,2
<b>Guztira</b>	<b>841</b>	<b>1.652</b>	<b>2,0</b>

Hauxe aipa daiteke egindako azterlana laburbilduz: langileen gastuak, oro har, behar bezala kontabilizatuta daude eta Udaleko langileek sortutako gastuei dagozkie, langileen ordezkariak eta Udalak izenpeturiko hitzarmenaren arabera jasoz baitituzte ordainketak.

Hala ere, hurrengoak azpimarratu beharrean gara:

- Fabrikatzaileak ez du jada mantentzen nominatarako erabiltzen den programa, eta horrek egokitzapenak eta eguneratzeak egitea zaildu egiten du.

- Ez da inongo kontuhartzarik egiten langileen gastuetan.

- Nominaren ordainketari gagozkiolarik, langileak 17 hitzarmen edo lan-egoera ezberdinetan daude.

- Urteko lan-enpleguaren garrantzizko portzentzia aldi baterako langileekin betetzeko joera antzeman da. 1996ko urteari zegokion hartan, 165 lanpostu ziren, 52 bete dira 1996 eta 1997an; sei lanpostu tramitatzen ari ziren eta 47 lanpostutarako deia egin gabe zegoen.

- Iruñeko Udaleko plantila aztertuz gero atera daiteke bere egitura organikoa ez dela osatu alorren azpiko administrazio-unitateak sortuz, alor horietako zereginak betetzen diren arren, formalki definitu gabe badaude ere.



- Izendapen askeko zuzendaritza-postuez gain (alorreko zuzendari eta idazkariak), "kudeatzaileen" figura sortu da. 32 ziren 1996. urteko plantilan.

Lanpostuak aldi baterako betetzen dituzten maila apalagoko langileak ere badira. Izendapen horiek zuzenesteko, ekonomia eta eraginkortasun arazoak aipa daitezke, edota promozioa eta prestakuntza sustatzea. Gure ustez, ordea, funtzionarioen prestakuntzarako jarduerak arautzen dituen 240/92 Foru Dekretua aplikatzen denean baino ez lirakeke zilegi izanen.

- Langileen espedienteak ez daude osorik, ez baitute jasotzen famili egoerari, gradu-igoerari eta bosturtekoari buruzko informaziorik, besteak beste. Aipatu behar da berrienak, oro har, osatua go daudela.

- Urteko ordainketen eta atxikipenen aitorpenean ez daude jasota nominatik kanpoko ordainketei dagozkienak, hau da, lanbidedunei ordaintzekoak, dietak, eta abar.

- Pentsioek sortzen dituzten gastuek modu garbiantz kontabilizatzen dira, langileen kuotengatik sartu diren 78 milioiak kendu egiten direlako.

Pentsioen ondoriozko betebeharrak ez dira zenbatetsi. Sartzen diren langile berriak Gizarte Segurantzaren sistema orokorrera bideratu arren, azpimarratu beharra dago egungo taramaren indarraldiak 50 urte baino gehiago izanen dela, salbuespenezko jarduerarik ez bada.

- 4,6 milioiko gastua dago udal funtzionario batzuen kolegiatio- eta mutualitate-gastuei dagozkiena. Hori berriz planteatu behar dela uste dugu, gai horri buruz indarrean den egungo legediaren arabera ez delako beti beharrezko aipatu teknika-riak lanbide-kolegioan edo mutualitatean sartzea bere eginkizunetan aritzeko.

- Musika-eskolako irakasleen 1995eko soldata-aldeei zegozkien kotizazioak ez dira Gizarte Segurantzaren sartu.

- Zinegotzien ordainketak bertaratze bakoitzeko 12.670 pta. behar duen arren, eta halako 10 gehienez, hileko, guztiendako ordainketa berdin bilakatu da, hileroko, benetako bertaratzeak kontuan hartu gabe. Beraz, soldata bihurtu da, praktikan, dieten ordainketei buruzko arautegiari itzuri eginez.

Beste alde batetik, gastuen asignaziorako ezarri diren gehienezko mugak ez dira beti eguneratzen erreferentziatza hartu diren Nafarroako Parlamentukoak bezala.

- Badira gora jotzeko lau errekurtsio eta zortzi administrazioarekiko auzibide-errekurtsio, langileen gaien inguruan. Zurztasun pentsioei eta ordainketen diferentziei buruzkoak dira.

Horiek horrela, hauxe gomendatzen dugu:

- *Nominentzako programei buruzko informazioa jasotzea, aldatu behar izanez gero prest egoetako eta kostuak eta ondorioak ezagutzeko.*

- *Langileen gastuen gaineko kontuhartzailetzak zer motatakoa izan behar duen definitzea.*

- *Ahal den neurrian, Nafarroako Gobernuak Osasun Laguntzaren Zerbitzuarekiko informazio-trukea hobetzea, osasun laguntza kudeatzeko aplikazio informatikoa hobetzea eta aurrerakinak eskatzeko epe eta baldintzei dagozkienak arautzea, gastuen kudeaketa errazteko, astunegia delako gaur egun.*

- *Udalaren egitura organikoa osatzea eta plantila egitura horri egokitzea. Era berean, izendapen askearen bidez beteko diren zuzendaritza postuak zehatz-mehatz definitzea, eta merezimenduetan eta gaitasunean oinarritutako hautaketa-sistemen bidez bete daitezkeen burutzak ezartzea.*

*Ahal den neurrian, hautaprobak erabiltzea aldi baterako kontratazioetarako.*

- *Langileen espedienteen edukia definitzea eta haiek osatzea.*

- *Nominen bidez egiten ez diren ordainketak sartzea ordainketen eta atxikipenen urteko aitorpenean.*

- *Musika-irakasleei ordaindu zaizkien atzerapenei dagozkien Gizarte Segurantzako kotizazioak sartzea eta aurreko urteetatik datorren 22 milioiko saldoa argitu eta erregularizatzea Ogasun Publiko hartzekoduna kontuan.*

- *Zinegotzientzako ordainketen ondasunak osatzea eta, hala bada, atxikipena egin behar zaizkien kopuruak Nafarroako Parlamentukoari egokitzea, erreferentziatza hartu diren heinean.*

#### VI.6.2. Ohiko ondasun eta zerbitzuen gastuak

Hona nola banatu ziren 1996ko ekitaldian

(milioi pezetatan)

	Zenbateko
20 Errentamendua	60
21 Konponketa eta mantenimendua	454
22 Zerbitzuen gastuak	4.004
23 Dietak eta kalteordainak	7
Guztira	4.525

Kapitulu honen exekuzioak aitorturiko betebeharren ehuneko 30 egiten du. Kapituluko aurrekontu bateratuaren gaineko exekuzio-maila ehuneko 88 da, eta ehuneko 13 gehitu da aurreko ekitaldiarekin konparatuz gero. Emaitza hori, gastu-kontzeptu gehienetan gertatu diren alde bietako aldaketan emaitza garbia da.

Kapituluaren exekuzioaren ehuneko 79 azaltzen dute hurrengo gastuek:

(milioi pezetatan)	
Kontzeptua	Zenbatekoa
Udal eraikinen argindarra	111
Argiteria publikoa	196
Jantziak	66
Ureztatzeko ura	71
Material tekniko eta berezia	182
Azpiegiturak konpontzea	153
Eraikinen mantenimendua	298
Komunikazioak	61
Garbiketa-kontratuak	802
Aplikazio informatikoak	306
Publizitatea eta propaganda	95
Zabalkundea eta argitalpen bereziak	81
Bestelako gastuak	158
Kultur programa berekiak	151
Kultur programak lankidetzan	104
San Fermin	154
Trafikoa arautzea	167
Garabiaren kontratua	88
Berdeguneak	89
Gizarte enplegua	82
Argien mantenimendua	178
<b>Guztira</b>	<b>3.593</b>

Alorka, obra eta azpiegiturei dagokie gastuzatirik handiean: bigarren kapituluko gastuen ehuneko 31.

Kontabilitatean, 2.735 milioi jaso dira bestelako enpresek egindako lanen kontzeptuan. Egindako kontratuen garrantzia erakusten digu horrek.

Egindako azterketaren ondorioz azpimarratu nahi dugu:

- Erosketak, oro har, alor bakoitzaren ardura dira, eta ez dago Erosketa Batzorderik, udalaren erosketa amankomunez eta, hala bada, gainera-koen aholkularitzaz eta koordinazioaz arduratzeko.

- Zerbitzuak burutuko direla bermatzeko emandako abalak alorretan geratzen dira.

- Informatikari bagagozkio, ANIMSA enpresa publikoarekiko menpekotasun handia dago. Enpresa horrek larrialdia igaro du eta bideragarritasun plan baten menpe dago; beraz, udal funtzionamendurako arriskua ekar dezake.

Hala ere, udalak enpresa horren kapitalaren %72 duela azpimarratu behar da.

- Badira garbiketako bi faktura, 1,3 milioi, Frantziako Tourra etorri zenean eta San Ferminetan egindakoei dagozkienak, izapidatu eta, ondorioz, kontabilizatu gabe.

- Kontratu batzuen garrantzi ekonomikoak eta atal guztiak (produktuak, lan bereziak, eta abar) arautzeko batzuetan izaten den zailtasunak interpretazio-irizpide ezberdinak ekar ditzake. Horri gagozkiolarik, esate baterako, bada administrazioarekiko auzibide-errekurtso bat 1995ari dagokion garbiketa-kontratuaren prezioen berrikusketa egiteko moduaren inguruan.

Publizitatearena azpimarratu nahi dugu kontuhartzaitzak aztertu dituen espedienteen artean. Udalaren publizitatea bi lehiaketatan esleitu da, ohikoa eta berezia bereiztuta. Bi esleipenak izan dira 30 milioinakoak eta emendatu egin dira gero, 38 eta 53 milioiko gastuak izateraino, hurrenez hurren. Baina, gainera, esleipen horretan oinarriturik, 31 milioi pezetako gastuak egin dira hainbat kultur ekintzatarako, erakusketen liburuskak egin eta banatzeko, publizitaterako, eta abarrrerako, ordainagiri bakoitzak 500.000 pezeta egiten duela, batez beste.

Saihestu egin behar dira horrelakoak. Hasierako esleipenean egin nahi den guztia aurreikusi behar da, konkurrentzia eta gardentasuna oztopenen dira, bestela, ez baita gauza bera 30 milioi pezetako esleipenerako lehiatzea, edo 90 milioira-ko lehiatzea.

Gure lanaren ondorioz gomendatzen dugu:

- *Erosketa Batzordea sortzea.*

- *Abal guztiak gordailuzaintzan zentralizatzea, alor bakoitzean eduki ordez.*

- *Egindako kontratuak aztertu eta kontrolatzeko sistemak ezartzea, baldintza-orriak errealitateari nola egokitzen zaizkion ikusteko, sortzen diren beharrian berriak baliosteko eta kontratua sartu ahal izateko.*

- *Esleipenen kostuen azterketa egitea, eta ahal den neurrian, beste entitatekoenekin alderatzea, ekonomiak lortu ote daitezkeen ikusteko, bai*



ordaindutako prezioetan, bai bestelako metodologiak ezartzeagatik.

- *Berrikitan egin den monopolioen liberalizazioak udal ekonomian izan dezakeen eragina aztertzea.*

- *Konkurrentziarik ezak edo egitezko monopolioak izateak ekar ditzakeen arriskuak aztertzea eta, ahal bada, konkurrentzia izatearen mesederako neurriak ezartzea. Esate baterako, ekonomikoki posible denean, zerbitzu bat hainbat multzotan zatitzeko saioa egin daiteke eta, are gehiago, zati bat baliabide berekiekin egiten saiatu, datu berekiak eduki ahal izateko.*

- *Kontratuak errealitateari egokitzea, egiteko asmoa dagoen guztia ateratzeko esleipenera.*

### VI.6.3 Pasiboen korrituak eta aldaketak.

Hona korrituen gastuen banaketa 1996an zehar:

	Milioi pezetatan
Maileguen korrituak	129
Nafarroako Gobernuaren maileguen korrituak	32
Diruzaintzako maileguen korrituak	107
Berandutze-korrituak	10
Guztira	278

Korritutzat aitorturiko betebeharrak aurrekontuaren ehuneko bi egiten dute, eta exekuzio-maila ehuneko 67 da, 1995eko ekitaldian baino ehuneko 15 gutxiago. Urtean zehar izandako saldo txikiagoari eta korritu-tasaren jaitsierari zor zaie, funtsean.

Burututako kopuruan sartu dira 15 milioi, VINSAk hitzartu eta udalak gero bereganatutako maileguen korrituen subsidiazioaren itzulketari baitagozkio, izan ere, "ezaldia bukatzen bada dagokion kontratua formalizatu gabe, dela salerosketa, dela prekarioko errentamendu lagapena edo komodotua, subsidiazioa eten eginen da".

Hainbat hartzekodunekin egindako ordainketa-atzerapenen likidazioei dagozkie berandutze-korrituak, batez ere.

Gastu finantzarioen aldaketez ari den gastuei buruzko 9. kapituluaren exekuzioak 603 milioi egiten du: aurrekontu guztiaren ehuneko lau, eta exekuzioa ehuneko ehun da. Ehuneko 25eko jaitsiera dago, 1995eko ekitaldiarekin konparatuz gero.

Egin dugun azterketatik ateratzen da kapitulu honen saldoa zuzen dagoela.

### VI.6.4. Ohiko transferentziak eta kapitalekoak

Gastu-kapitulu hauen exekuzioak 1.413 milioi jotzen du, ohikoetan, eta 86 milioi, kapitalekoetan: exekutatu den aurrekontuaren ehuneko 10. Exekuzio-mailak ehuneko 97 jotzen du. Ehuneko 15 gehitu da 1995ekoarekiko.

Izendun dirulaguntzak dira kapituluaren zati nagusia. Hartara, 1996ean eman zirenak:

	Milioi pezetatan
Hirigintza Gerentzia	293
Haur Eskolen Patronatua	324
COTUP*	300
Espetxeen batzarra	6
Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa	7
Guztira	930

\* Horren barruan daude COTUPi emandako 65 milioi, ezindu, gutxitu eta jubilatuen tarifa txikiagoen konpentsazio gisa.

Ikusten denez, 600 milioitik gora eman zaio Udalaren bi erakunde autonomori. Beraz, aurrekontu bateratua kontuan hartzen bada, transferentzien garrantzia ehuneko 10etik ehuneko 4ra jaitsiko litzateke.

Udalak baditu gainerako dirulaguntzak emateko irizpide oinarrikoak, eta aurrekontu-exekuzioaren oinarrietan jasota daude.

Erakunde autonomoentzako dirulaguntzak ohiko funtzionamendurako dira. Txosten honetako VII. atalean aztertuko dira horiek.

COTUPentzako dirulaguntza, enpresa horren auditoretza-txostena hartu eta aztertu ondoren erabakitzen da.

Espetxearentzako dirulaguntza dela-eta, Kontuen Ganbara honek 1997an egin zuen txostenera jotzen dugu. 1998ko urtarrilaren 15eko 6 zk.ko NPAOn argitaratu zen hori. Aipatu txostenaren ondorioetako bat da, 89-96 aldirian, udalak 95 milioi pezeta eman zituela, udalek, espetxe-alorreko eskumenik ez dutenez, espetxeek eragindako gastuak finantzatu beharrik ez dutenean.

Hala ere, aipatu kopuruak zeharka berreskuratu direla esan digute, Saneamenduari buruzko Legea aplikatuz, eta gaur egun ez dela jada ezer ordaintzen kontzeptu horrengatik.

Egindako azterlanetik ateratzen da:

- Abenduan exekutatu zela dirulaguntzen ehuneko 45a, eta abenduaren 31ra bitartean eginda-

ko ordainketek emandako dirulaguntzen %45 jotzen zutela.

- COTUPeko dirulaguntzan 60 milioi sartu dituztela ibilgailuak hobetzeko. Kapital-transferentzietan sartu beharra zegoen.

Gomendioak:

- *Deialdien ebazpena eta hitzarmenen izenpe-  
tzeak arintzea, ematen diren laguntzen ehuneko  
45 urteko hondarreko hilean ez pilatzeko, eta  
eskatzaileek aurretik jakin ahal dezaten onuradun  
izan diren ala ez.*

- *Deialdi publikoen bidez gauzaturiko lagun-  
tzak ahalik eta gehien zabaltzea, kultur gaien alo-  
rrean, batez ere.*

### VI.6.5. Inbertsioak

Kapitulu honen behin betiko aurrekontuak 2.461 milioi egiten du eta 1.477 milioiko exekuzioa dakar, hau da, aurrekontuan zegoenaren %60. Exekuzio horrek udalaren guztizkoaren ehuneko 10 egiten du eta ehuneko 41 gehitu da aurreko urtearekin konparatuz gero.

Udal aurrekontuaren pentzutan finantzatu diren inbertsioez gain, gogoan izan behar da Hirigintza Gerentziaren ia-ia aurrekontu osoa inbertsioetarako dela eta 1996an 3.495 milioira iritsi zela (ikus VII.1.1. atala).

Kontusailik esanguratsuenek exekuzioaren %64 egiten dute. Hona:

	Miloi pezetatan
Bideak eta urbanizazio orokorrak	210
Parke eta lorategietako azpiegitura	104
Alde Zaharreko jarduketak	301
Ondareko lursailak	331
Guztira	946

Beste alde batetik, badira 608 milioiko aurrekontua duten kontusail batzuk, batere edo gutxi exekutatuta, 48 milioi, guztira, hau da, aurrekontuan zegoenaren %8. Kontusail horien artean aipa ditzakegu lurra erostea, Aranzadiko igerileku estalia, Karrikiri kaleko frontoia estaltzea, hilerria handitzea, ibilgailuak erretiratzea eta argiteria publikoa.

1996an ekin zioten "gastu-proiektuak" kontabilitate-modulua ezartzeari eta 1997an bukatu zuten. Inbertsioen kontrolerako aurrerapen handia ekarriko al du horrek.

Lau espediente aztertu dira, hurrengo kontzeptuei buruzkoak:

Kontusaila	Kontzeptua	Aitorturiko betebeharrak
Bide eta urbanizazioak	Fiteroko M.ko glorieta	147
Azpiegitura eta lorategiak	Yamagutxi parkea	55
Alde Zaharra,	A.Z. berrurbanizatzea	296
Lursailak	ondareko lursailak	331

Ondareko lursailen kontusaila Hirigintza Gerentziari aurretik ordaintzen zaizkion urbanizazio-kuotei dagokie. Aipatu gerentzia udalaren beraren erakunde autonomoa da.

Gainerako kontusailak aztertu eta atera dugu espedienteen tramitazioa onargarria dela, oro har, eta behar den dokumentazioa ageri dela. Esleipenak lehiaketaren bidez egiten dira eta kopuru ekonomikoaren balorazioa aurkeztutako eskaintzen batez besteko balioaren arabera egiten da. Exekuzio-eparearen balorazioari buruzko irizpideak ez dira baldintza-orrian sartzen, normalean.

Era berean, ordaintzeko berandutzeak ikusi ahal izan ditugu hainbat espedientetan, berandutze-korrituak ordaindu behar izateraino, batzuetan.

#### A) Fiteroko Monastegia kaleko glorieta

1994. urtekoa da espedientearen hasmenta. 1995ean ireki ziren egindako lehiaketaren eskaintzak, baina ez zen esleipenik egin, aurrekontuak onetsi ez zirelako. 1995eko urrian berriro egin zuten lehiaketarako deia, urte anitzetako obratzat hartuz, 198 milioitan. 1995eko abenduan esleitu zitzaion kontratazio-mahaiak proposaturiko enpresari 138 milioitan, %30eko jaitsierarekin.

1995eko aurrekontuan jasotako sei milioi jotzen duen lehenbiziko ziurtagiria abenduaren 29koa da, obra hasi zen egun berekoa.

Bada Osoko Bilkurak onetsitako aldaketa bat, 15 milioi jotzen dituena. 1996ko maiatzean egin zen obra-harrera behin-behinekoa, eta behin betiko harreraren akta izenpetu gabe dago oraindik, bermealdia igarota den arren.

153 milioi pezeta jo zituen azken kopuruak.

Azpimarratu nahi dugu bi lizitazioen bitartean, 1995eko otsailetik azarora, alegia, lizitatzaileren kopurua 19ra igo zela, 14 izatetik, eta eskaintza ekonomikoak %5 jaitsi zirela, batez beste.

#### B) Yamagutxiko parkea

Nafarroako hiriburua eta Japoniako Yamagutxi hiria senidetzearen ondorioz, Iruñeko planetarioaren ondoan eraiki behar zuten parkea Japoniako hiriko teknikarien lankidetzarekin diseinatzea erabaki zuten.

Dagokion lehiaketa egin ondoren esleitu zitzaion, 1996ko maiatzean, 51,4 milioitan, kontratazio-mahaiak proposaturiko enpresari, lizitazio-prezioaren gaineko %25eko jaitsierarekin.

Exekuzioan zehar, aldaketak onetsi ziren epea luzatzeko, prezio berri kontraesankor batzuen ondorioz.

Azken zenbatekoak 54,5 milioi jotzen du, hau da, esleipena baino 3,1 milioi gehiago. Obraharreraren behin-behineko akta 1996ko abenduaren 15ean izenpetu zuten.

### C) Alde Zaharra

Lehen etapari ekin zitzaion, Iruñeko Alde Zaharra zaharberitzeko proiektuaren barruan, Txapitela eta Mercaderes kaleak, Udaletxeko Plaza eta Calceteros kalea hartuz.

1996ko martxoan onetsi zuten obren proiektua 440 milioitan, horietatik 10 segurtasun eta higie-neari zegozkiela. Urte bereko uztailean ebatzi zuten lehiaketa bidezko esleipena, 379 milioitan, ehuneko 14ko jaitsierarekin. Kontratazio mahaiak proposatu zuen enpresarioari esleitu zitzaion.

Obren esleipenaz landa, obraren zuzendaritzari eta geologi eta arkeologi aholkularitzari buruzko zuzeneko esleipenak egin ziren, 24 milioi pezetatan.

Obrak hurrengo aldaketak izan ditu:

- 1997ko otsail, apiril eta maiatzean harturiko hiru erabaki, epea 50 lanegun luzatzeko.
- 1996ko azaroko eta 1997ko maiatz eta abuztuko hiru erabaki, guztira 58,7 milioi jotzen duten prezio kontraesankorrak onesteko.
- 1997ko urtarrileko erabakia prezio kontraesankorrak onesteko, aurrekontua gehitzea ekarri ez zuten arren.

Aitorturiko betebeharrak 425 milioi jotzen dute eta esleipenaren zenbatekoak gehi aldaketak 438 milioi. Beraz, 13 milioi pezeta jotzen duten aurrekontu-kredituak deuseztu ahal izan dira.

1997ko urrian izenpetu zuten obren harrera-akta behin-behinekoa, esleipendunak hainbat berme berretsi ondoren, obren zuzendaritzaren arabera konpondu behar ziren akats eta arriskuak zirela-eta.

Horiek horrela, hauxe gomendatzen dugu:

- *Lehiaketetan baloratu beharreko alde bakoitzaren balioespenak ez ezik, jarraitu beharreko irizpideak ere sartzea baldintza-orrietan, exekuzio-pepari dagokiona, batez ere.*

• *Gastu-proiektuen kontabilitate-moduluaren garapenarekin jarraitu.*

• *Ordainketetan ez atzeratzeko aukerak aztertzea, berandutze-korrituei aurre egin behar ez izateko.*

### VI.6.6. Tributu-dirusarrerak

1996ko aurrekontu-likidazioarekin bat, hona tributu-dirusarreraren kapituluak erakusten duten exekuzioa:

Kapitulua	Hasierakoa	Behin betikoa	Burutua	Kobratzeke
Zuzeneko zergak	3.345	3.345	3.340	301
Zeharkako zergak	1.481	1.481	1.547	204
Tasak	1.482	1.492	1.537	199
Guztira	6.308	6.318	6.424	704

Dirusarreraren ehuneko 39 egiten du kapituluon exekuzioak, eta portzentaia 45eraino iritsiko litzateke zorra gehitzearen ondoriozko dirusarrerak kontuan hartuko ez balira.

Guztizko exekuzio maila ehuneko ehun da eta kobraketa, ehuneko 89.

689 milioi gehitu da 1995ekoarekiko, ehuneko 12ko gehikuntza, beraz.

Hona axola handieneko kontzeptuak, exekuzioaren ehuneko 81 egiten baitute:

	Milioi pezetatan
Zergak:	
Hiri kontribuzioa	1.970
Lizentzia fiskala	1.090
EIOZ (Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga)	670
Ibilgailuen zerga	652
Tasak:	
Zaindutako aparkalekuak	112
Hirigintza lizentziak	101
Irekitzeko lizentziak	134
Zerbitzu publikoen enpresen	
Probetxamendu bereziak	329
Isunak eta zehapenak	123
Guztira	5.181

1996an ezarri dute EIOZ (eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga), obren lizentziaren aintzinako tasa hein batean ordeztu duena. Horren ondorioz, tasen dirubilketa jaitsi egin da eta zergena igo. Aipatu kontzeptuaren ondoriozko dirubilketak ehuneko 48 egiten du gora, guztira. Aurten iraungiko den orubeen gainekoak saldo negatiboa dakar, aurreko urteko behar ez ziren

dirusarrerak itzuli egin direlako (3,7 milioi). 1997an jarri zuten Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ) lizentzia fiskalaren ordeez.

Zerga Ordenantza Orokorra dago dirusarrera horiek kudeatzeko eta 31 ordenantza berezi daude, dirusarrera-mota bakoitzarendako bana.

Dirusarrera nagusiak kudeatu eta kontrolatzeko prozedura-eskuliburuak egin dira. Horietako batzuk 1997koak diren arren, prozedura 1996an ere erabiltzen zen, oro har.

Egindako lanetik atera dugun ondorioa da tributu-dirusarrerak kudeatzeko erabiltzen diren sistemak egokiak direla eta kontabilizatu diren dirusarrek behar bezala islatzen dutela udalaren egoera.

Gomendioak:

- *Eskuliburuak egin eta ezartzen jarraitzea, halakorik ez dagoenean.*

- *Kontrolak ahalik eta gehien mekanizatze ahalegina.*

- *Kudeaketaren zati bat beste erakunde batzuen menpe duten dirusarren kudeaketa (zirkulaziokoak) hobetzeko prozedurak azterzea.*

- *Ordainagiriaren helbideratze handiagoa lortzeko ahalegina egitea, zirkulazioaren gaineko zergan batez ere, kudeaketa errazteaz gain, kobraketa-maila altuagoa delako helbideratuetan.*

- *Bestelako jarduketetarako (obren lizentziak) baldintza diren espedienteak kudeatu eta ebazteko epeak laburtzea.*

- *Dirusarren kontuhartze-sistema ezartzea.*

#### VI.6.7. Ohiko transferentziak

Likidatu diren eskubideak, 6.703 milioi, ekitaldiko dirusarren ehuneko 41 dira. 380 milioiko gehikuntza izan da aurreko urtearekiko, ehuneko sei, alegia.

Aurreikusitako aurrekontuarekiko desbideraketa, 8.086 milioi, ehuneko 17 da, eta hemendik dator: 2.100 milioi jarri ziren aurrekontuan hiriburutza-agiria ezarriko zelakoan eta 570 milioi besterik ez zen aurreikusi Saneamenduari buruzko Legearen ondorioz.

Hona dirulaguntzarik garrantzizkoenak, kontzeptua:

Kontzeptua	Milioi pezetatan
Toki Ogasunen Fondoetan partehartzea	4.299
Saneamenduari buruzko	
Legearen ekarpena*	570
Udal Koop. Fondoko ekarpena	485
INEM	121
Udal Ikastola	236
Taramaren finantzaketa	355
Haur eskolak	103
Suhiltzaileen tarama	119
Gizarte enpleguko programa	124
<b>Guztira</b>	<b>6.412</b>

\* 1997an kontabilizatu ziren 413 milioi izan da azken ekarpena, Nafarroako Gobernuak egin zituen doiketen ondorioz.

Hona azken urteotan ohiko transferentzien ondoriozko dirusarrek izan duten bilakaera:

Urtea	Dirusarrerak, guztira	Transf. dirusar.	%	Ohiko dirusarren g. %
1993	13.437	6.621	49	56
1994	13.208	5.995	45	51
1995	12.905	6.324	49	52
1996	16.404	6.703	41	51

Hona Saneamenduari buruzko Legearen ondoriozko ekarpenak zeintzuk izan diren:

Urtea	Milioi pezetatan
1989	1.405
1990	1.153
1991	1.158
1992	1.130
1993	1.073
1994	537
1995	611
1996	570
<b>Guztira</b>	<b>7.637</b>

Datu horretatik ateratzen da, alde batetik, ohiz kanpoko aportazio horren beharrezana etengabea dela, eta bestetik, jaitsi egin dela, 1996koa 1989. urtekoaren ehuneko 41 izan baitzen.

Egindako lanaren ondorioz, hauxe gomendatzen dugu: *benetan aterako diren kopuruak sar-*

*tzea aurrekontuan, aurreikusaren eta exekutatuaren arteko alde handiak agertzea saihesteko.*

### VI.6.8. Gainerako dirusarrerak

Hona dirusarreraren gainerako kapituluaren exekuzioa eta aurreko urtekoekiko konparazioa:

Kontzeptua	1996	1995
Ondare dirusarrerak	138	112
Inbertsio errealak besterentzea	466	311
Kapital transferentziak	259	207
Aktibo finantzarioak	196	200
Pasibo finantzarioak	2.218	15

Hona aipatu kapitulu ekonomikoen kontusailik esanguratsuenak:

- Emakidak eta kanonak (90 milioi).
- Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko Gobernuari saldutako lurak (440 milioi).
- Nafarroako Gobernuaren hainbat dirulaguntza (169 milioi).
- Mailegu eta aurrerakinen itzulketak, osasun laguntzakoak, batez ere (174 milioi).
- Hitzartu diren mailegu berrien ondoriozkoak (2.218 milioi).

Maileguei dagokien kopuru horretatik, hiru milioi 1995eko urteko mailegu batetik erabili gabe zegoen zatiari dagozkio; gainerakoa, hau da 2.215 milioi, 1995eko abenduaren 31n zegoen diruzaintza-gerakin negatiboa finantzatzeko 1996an hitzartu zenari, Nafarroako Gobernuak baimena eman eta gero.

Maileguak lau entitatekin hitzartu dira hiru urterako. Korritu-tasa aldakorra da, MIBOR gehi ehuneko 0,10 baino gehiago ez den diferentzial baten arabera.

1996ko abenduaren 31n indarrean zeuden diruzaintza-maileguak kentzea da haien helburua, finantziatu behar diren beharrezanez hobeto egokitzen zaien finantzaketa-epea ezartzearekin batera.

### VI.7. EGOERA-BALANTZEA

Iritziari buruz ari den IV. epigrafean aipatu dena gogoan hartuz, hauxe azpimarratu nahi dugu atal honetan:

- Udalak badu 1996ko abenduaren 31n zuzendutako inbentarioa. 1996ko kontuen oroit-idazkian aipatzen da "balantzeko ibilgetuaren multzoan agertzen diren balioen eta inbentarioaren egune-

ratzean ateratzen direnen arteko alde handia". Kontabilitate-balioen eta inbentariokoen arteko doiketa egin da, hori dela-eta, zenbatekoak bat ez badatoz ere, hainbat arrazoi direla eta.

Oroit-idazkiak berak aipatu du kontabilitate-multzo horretako kontu bakoitzaren osaeraren azterketa zehatza egin beharra dagoela, kontabilitatea errealitatearekin uztartu eta mantenimendua sistema ezartzeko.

- Ez dira ondasunen gaineko amortizazioak egiten.

• Ibilgetu finantzarioari bagagozkio, Iruñerriko Mankomunitateari egin zaion ekarpenari dagokio axola handieneko kontusaila, 1.241 milioi, alegia. Gainerakoan, ANIMSaren balio galtzearen aurrean, depreziatorako probisioa eratu beharko litza-teke, 13,2 milioi pezetatan.

- Bada aseguru-poliza bat, 15.400 eta 1.602 milioiko kapitalak aseguratzen. Edukitzaileari eta edukiari dagozkio, hurrenez hurren.

• Ohiko aurrekontuko aitorturiko zorregatik zordunen saldoak 5.024 milioi dira, eta ekitaldikoei, 3.114 milioi, eta aurreko ekitalditakoei, 1.852 milioi, dagozkie, funtsean. Ekitaldikoetan, 1.150 milioi diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzeko kontratatu eta urtarileko lehenengo egunetan erabiltzen diren kredituei dagozkie, eta 1.043 milioi beste administrazioen, Nafarroako Gobernuaren eta Estatuaren ekarpenak dira.

• Aurreko ekitaldietako zordunen saldoari buruz, kontabilitate saldoa agentzia betearazlean dagoena baino txikiagoa da. Trafiko-isunak kontabilizatzeko erabiltzen den moduari zor zaio hori, funtsean, kobraketen arabera jasotzen direlako kontabilitatean, zuhurtziagatik.

Kontuen Ganbarako gomendioei jarraiki, garbituz joan dira aipatu saldoak eta 741 milioi kendu dira 1996an, 1997an 757 milioi kendu diren bitartean. 1996an deuseztu ziren 741 milioi horiek hurrengoengatik kendu ziren:

	Milioi pezetatan
Likidazioak deusezteak	95'4
Preskripzioak	525'6
Hutsegindakoak	119'8
Guztira	740'8

Alkatetzak erabaki ditu kenketa horiek, kudeaketa-unitateek hala proposatuta eta, orokorrean, kalkulu-akatsengatik, zorrak titularrei jakinarazi ezinagatik, hildakoengatik... gertatu dira.



Deusezturiko saldoen zati handia isunei eta zirkulazio zergari dagokie.

Aipatu kopuruaren axola handiak aurreko urteetako saldoen garbiketarekin jarraitzea galdatzen du, kontabilitate-saldoak benetan kobra daitekeena erakus dezan; orobat, zordunen kudeaketan zorrozatasuna erabiltzea, hutsegindakoak eta preskripzioak saihesteko. Horri gagozkiolarik, isunei buruzko udal politika birplanteatu beharra dago, kobraketa-portzentaia oso apala delako.

- Kapital dirulaguntzak balantzearen pasiboan edukitzeari eusten dio udalak, emaitza-kontuari urtero egotzi behar zaizkion arren, kontabilitate plan berriaren arabera.

- Epe luzeko hartzekodunetan, 5.076 milioi, 1996ko bukaeran diruzaintza-gerakin negatiboa finantzatzeko itundu ziren 2.215 milioiak jasotzen dira. 1997ko hasieran kopuru horrekin deuseztu ziren epe laburreko hartzekodunen atalean agertzen ziren 2.000 milioiko diruzaintza-kredituak.

- Fidantza eta gordailuen kontzeptupean, 535 milioiko saldoa dago, gu lanean ari ginen bitartean aztertzen eta garbitzen zihardutena. Saldo batzuk oso zaharrak zirenez eta Nafarroako Gobernuak zalantzan jarri zituen probetxamendu-unitateen transferentziak fidantzatzat sartu direnez, garbiketa hori egin egin behar da.

- Formalizatu gabeko dirusarreretan sartu dira, funtsean, 1996ko aurrezki negatiboari aurre egiteko Nafarroako Gobernuak emandako aurrerakinak. Dirulaguntza bihurtzen dira behin betiko kontuak aztertu ondoren.

*Ibilgetuaren, zordunen eta fidantza eta gordailuen kontuen saldoak garbitzen jarraitzea gomen datzen dugu; eta baita zorroztasun handia erabiltzea zordunen kudeaketan, hainbat akats direla-eta deusezten edo preskribatzen diren kopuru esanguratsuak saihesteko.*

## VI.8. HIRIGINTZA

Honako hauek osatzen dute gai honi buruzko esparru juridiko orokorra: Lurrari buruzko 1990eko Legeak; Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Birbildua onetsi zuen 1992ko Errege Dekretu Legegileak; Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 1994ko Foru Legeak; eta lurraren alorreko neurri askatzaileei buruzko ekainaren 7ko 5/1996 Dekretu Legeak. Gero, Konstituzio Auzitegiak martxoaren 20ko 61/97 epaia eman zuen, Lurrari buruzko Lege gehiena konstituzioaren aurkakotzat edo deuseztatzat joz.

Berez nahasi eta zail den hirigintzaren lege-esparrua are zailagotzea ekarri du epai horrek, indarrean zegoen estatu-legediaren zati handi bat deuseztu egin zuelako, autonomietarako duen eraginarekin.

Horregatik, lan honetan, "Norainokoa"z ari den III. atalean iruzkin bezala, indarrean dagoen Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorraren (HAPO) egoera aztertu dugu. 1982an onetsi zuten, hasiera batean, eta 1984an behin betikoz, jendaurrean paratu eta behin-behinekoz onetsi ondoren. 1984ko azaroaren 23ko EAOn argitaratu zuten.

Hamaika aldaketa izan ditu HAPOk 1993tik hona. Bederatzi, udalaren ekimenaz, eta partikularrek eragindako bi.

HAPO garatzeko plangintza-lan onetsiak 47 izan dira, 38 partikularren ekimenez eta gainerako bederatzia udalak bultzatuta.

Lurra kudeatzeko espedienteak, birzatiketak, 27 dira. Horietatik 15, udal ekimenarengatik, eta 12, partikularrenarengatik. 1.000.000 metro koardro inguru hartzen dute birpartzelaziook.

8.978 etxebizitza eraikitzeako lizentziak eman dira 1987 eta 1996 urteen bitartean. 1995.a izan zen lizentzia gehien eman zen urtea: 1.545. Aldeka, Mendebaldean, 3.080, eta Errotxapean, 2.739, eman dira gehienak.

4.572 lizentzia eman dira 1993 eta 1996 bitartean.

1984ko HAPOk bi laurtekorako jarduketa-programa ezarri zuen. Lehenengoa igaro ondoren, 1988ko apirilean, Hirigintza Gerentziako Kontseiluak erabaki zuen Plan Orokorra errebisatzeari ekitea. Errebisatzeko prozedura horri ekiteak, Lurrari buruzko 1990eko Legea onestearekin batera, udalaren lanak plana errebisatzeko bidea hartzea ekarri du, eta ez, ordea, jarduketa-programa egokitzearena, eta ia-ia hamar urte dira jarraitzen ez dela.

1994an berrekin zitzaion HAPO errebisatzeari. 1995ean onetsi zen errebisiorako proposamendutxostena. 1997ko apirilaren 25ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak Planaren aurrerakina eta jendaurrean jartzea erabaki zuten.

Gaur egun, aurrerakinari aurkeztu iradokizunei buruzko txostena egin ondoren, Udal Planaren proiektua ari dira lantzen. 1998an onetsi nahi dute.

## VII. ERAKUNDEAK ETA ENPRESAK

### VII.I. ERAKUNDEAK

#### VII.1.1 Hirigintzako Udal Gerentzia

Azaroaren 13ko 219/1985 Foru Dekretuaz onetsi zen Iruñeko Udaleko Hirigintza Gerentziaren araubidea. 1985eko maiatzaren 30ean hartu zuen Udalak hura sortzeko erabakia.

Gerentziak bere jardura burutuko du zuzeneko kudeaketarako udal organo gisa, bere nortasun juridikoarekin, eta udalaren fiskalizazio eta kontrolpean dago.

Gerentziaren esku utzi da Iruñeko udal dermioko hirigintzaren kudeaketa, eta hurrengo eskumenak ditu bere, besteak beste:

- HAPO kudeatzea.
- Plan partzial, berezi, hirigintzako jarduketa programa, xehetasunezko azterlan, eta abarren proiektuak idaztea.
- Udal dermioko pertsona- eta ibilgailu-trafikoa antolatu eta arautzeko proiektu eta dokumentuak idaztea, baita garraio publikoari dagozkionak ere, lurgaineko edo lurrazpiko aparkalekuaren kudeaketari buruzkoekin batera.
- Udalaren lurzoru-ondarearen kudeaketa burutzea.
- Hirigintza-espeditenteei buruzko txostenak egitea, espedienteon izapidatzea eta ebazpen-proposamena...

Udaleko plangintza-alorreko buruak du Gerentziako zuzendaritza.

Urbanizazio-kuotak dira Gerentziaren baliabide nagusia.

Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak zergaz besteko baliabidetzat jo ditu. Hona nola

definitu dituen: "hirigintzako exekuzio unitateren batean dauden terrenoen jabeek toki entitateei eman behar dizkieten prestazioak, egindako urbanizazioaren kostuak berdintzeko, ekintza sistema, hirigintza legediaren arabera, lankidetzarena delarik".

Urbanizazio-kuotaren zenbatekoa urbanizazio-lanen guztizko kostuaren betekoa izanen da.

Dagokion birzatiketa-proiektuan eta haren behin-behineko eta behin betiko likidazioaren kontuetan finkatuko dira kuota horiek. Onespenak kuotak finkatzea ekarriko du eta berehala ordainarazteko aukera.

Jardun duen toki entitateak idatziko du behin betiko likidazioa, benetako eta egiteko kostuaren arabera, urbanizazioa bukatu ondoren eta, beti ere, birzatiketa behin betikoz onetsi zenetik bost urte igaro baino lehen.

Dagokion proiektuan aurreikusi diren obra, instalazio, zerbitzu edo kostuak ordaintzeko baino ezin dira erabili urbanizazio kuoten ondoriozko dirusarrerak.

Hirigintza Gerentziaren Kontseiluak onetsi zituen Gerentziaren 1996ko kontuak, 1997ko irailaren 4an eginiko bilkuran.

Lanbidedun independente batek aztertu ditu kontu horiek. Txostenak aldeko iritzia eman du, salbuespen batekin: BEZari buruzko zerga-gorabehera, BEZaren hainbat kuota likidatu gabe dagoelako.

Aipatu txostenak azpimarratu egiten du gerentziak nortasun juridikoa izan arren, ez duela kudeatzeko askatasunik, udalaren manupean dagoelako, hala finantzaketaren aldetik, nola bere helburua betetzearenetik.

Hona 1996ko abenduaren 31ko balantzea eta 1996ko aurrekontu-exekuzioa:

(mila pezetatan)

AKTIBOA		PASIBOA	
Ibilgetu inmaterial garbia	2.748	Atxikitako ondarea	354.990
Ibilgetu material garbia	7.371	Hainbat hartzekodun	691.004
Izakinak	5.714.566	Aldizkakotze-doiketak	7.625.924
Mendebaldea B	36.614	Mendebaldea B	18.186
Mendebaldea C	924.382	Mendebaldea C	1.020.924
Etxabakoitz	740.512	Etxabakoitz	1.501.673
Beste batzuk	4.013.058	Beste batzuk	5.085.142
Zordunak	459.882		
Aldi baterako inber. finantz.	2.157.200		
Diruzaintza	330.151		
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>8.671.918</b>	<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>8.671.918</b>

## Aurrekontuaren exekuzioa (milioi pezetatan):

	Behin betiko aurrekontua	Exeku- taturiko aurrekontua
Dirusarrerak		
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3.443	2.439
Ohiko transferentziak	293	293
Ondare dirusarrerak	49	127
Kapital transferentziak	35	35
<b>Guztira</b>	<b>3.820</b>	<b>2.894</b>

	Behin betiko aurrekontua	Exeku- taturiko aurrekontua
Gastuak		
Langileak	129	103
Ondasunak erostea	196	194
Inbertsioak	3.495	1.685
<b>Guztira</b>	<b>3.820</b>	<b>1.982</b>

1996ko ekitaldian aitortu diren betebeharrak 1.983 milioi dira eta aitorturiko dirusarrerak 2.894 milioi: aurrekontuaren emaitza 911 milioiko superabita da. Aurrekontu-emaitza honen barruan, badira atxikitako dirusarrerak eta ezin da argi eta garbi bereizi atxikitako gerakina zein den.

Diruzaintzako gerakinak 2.256 milioi jotzen du. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari egokitu gabeko kontabilitatea izateak ez du uzten zehatz jakiten zein den atxikitako diruzaintza-gerakina eta zein den gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina.

Udalaren menpeko organo denez eta, batez ere, Gerentziak burutzen duen jarduna zein den ikusita, funtsezkoa da aipatu kopuruek, alegia, atxikitako gerakina eta gerakin orokorra, zenbat jotzen duten jakitea.

1997an ezarri dute toki entitateei egokitutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra. Tresna horrek aukera emanen lioke Gerentziari legezko xedapenak, kontabilitatezkoak zein aurrekontuzkoak, betetzeko, eragin egiten baitiote, ente publikoa den aldetik. Hala ere, ahalegin handia egin behar du poligonoen kontu banakatuak argitze-ko eta gastuen proiektuen modulua ezartzeko, poligono bakoitzaren kontu analitikoak burutu ahal izateko.

## Kontratazioa:

Obren kontratazioan erabili diren prozedurak aztertu ditugu. Hona 1996ko esleipenak:



(mila pezetatan)

Lana	Esleitzeko modua	Lizitazioaren prezioa	Esleipenaren prezioa	Jaitsieraren %
Poligonoa, P.7. Rotxapea	Lehiaketa	130.053	82.297	36'72
Poligonoa, 5A-5B. Rotxapea	Lehiaketa	248.747	163.675	34'20
E. Unitatea. Sanduzelai	Lehiaketa	519.080	348.147	32'93
Alemanes	Lehiaketa	685.883	479.295	30'12
Sanduzelaiko BEPB	Lehiaketa	335.686	196.150	41'57
Landaben-Abonos orgánicos	Lehiaketa	115.823	82.778	28'53
Poligonoa, P-6A. Rotxapea	Lehiaketa	213.349	132.945	37'69
Ipar Etxabakoitzeko 2. fasea	Lehiaketa	637.620	472.476	25'90
Joaquin Beunza kalea-Rotxapea	Lehiaketa	98.267	69.116	29'67
Arriurdiñeta plaza	Lehiaketa	49.507	37.111	25'04
P-4A P-5B-Rotxapea	Lehiaketa	93.588	66.728	28'70
Larrabideko obra osagarriak	Lehiaketa	92.041	61.575	33'10
<b>Guztira</b>		<b>3.219.643</b>	<b>2.192.295</b>	<b>31'91</b>

Laukian ikusten denez, lan guztiak esleitu dira lehiaketa publikoan. Lizitazio-prezioaren gaineko batez besteko jaitsiera %31,91 izan da esleipenean.

Egindako azterketatik atera dugu Hirigintza Gerentziak, obren kontratazioan, errespetatu egiten dituela kontratazio publikoari arnasa ematen dioten printzipioak: publizitatea, konkurrentzia eta gardentasuna. Tramitazioaren akats formalak ikusten dira, hala ere, espediente batzuetan:

- Administrazio baldintza berezien orrietan ezarritako eguna baino beranduago hastea obra, atzerapenaren arrazoiak azaldu gabe.
- Obra-kontratua ez formalizatzea.
- Behin betiko fidantzak aurkezteko atzerapena.
- Aurrekontu kontsignazio nahikoa eta egokia badela ez egiaztatzea.
- Txosten juridikorik eta kontuhartzailtzakorik eza.

Lan honetan dihardugula ari dira aipatu akatsak zuzentzeko baldintza-orri berriak prestatzen.

Laguntza tekniko emateko lau kontratu ere aztertu dira (proiektuak idaztea). 23 milioi pezetatan esleitu dira.

Laguntza-kontratu horiek aztertu eta gero, hauxe atera dugu:

- Akatsak daude prentsa-iragarkietan eta administrazio baldintza berezien orrietan erabilitako

terminologian. Akats edo nahaste horiek saihesteko, Gerentziaren zerbitzu juridikoek aztertu behar-ko lituzkete administrazio baldintza berezien orri guztiak, kontuhartzailtzarik ez da-eta.

- Hamar milioi pezeta baino gutxiagokoak dira aztertu ditugun kontratu guztiak, beraz, prozedura negoziatua erabil daiteke horietan guztietan. Hala ere, beharrezko da irizpideak eta haien balorazioa administrazio baldintza berezien orrietan jartzea, objektiboki aplikatu ahal izateko.

Horiek horrela, horra gomendioak:

- *Hirigintza Gerentziak erakunde autonomo izateari eustea edo, bestela, udal-zeregin tipikoa duenez, udalaren egituran sartzea komenigarri eta egoki den aztertzea.*

- *Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra (KPPO) ezartzea, gastu-proiektuen modulua, batez ere, proiektu bakoitzaren kontu analitikoak eduki ahal izateko eta horietako bakoitzaren benetako egoera jakiteko, eta ondorioz, diruzaintza-gerakin atxikiaren eta orokorren saldoa eza-gutzeko.*

- *BEZaren ondoriozko zerga-egoera argitzea, eta horren ondorioz dagoen gorabehera hori konpontzea.*

- *Kontratatazio-arauen hurrengo baldintzak betetzea: kontratua izenpetzea, txosten juridikoak eta kontuhartzailtzakoak izatea, fidantzak epearen barruan aurkezte, eta abar.*

• *Esleitzeko sistema eta irizpideak argi eta garbi ezartzea laguntza teknikoaren kontratuak baldintza-orrietan, eta horiek aplikatzea, noski.*

### VII.1.2. Haur eskolak

Behin-behineko patronatu gisa eratu zuten Haur Eskolen Organismoa 1978an onetsi zuten estatutuen hasierako proiektuarekin.

Egun indarrean diren estatutuak 1984an onetsi zituzten, eta zerbitzuetarako fundazio publikotzat jotzen dute, bere nortasun juridikoarekin, udaletik independente. Haren xedea da haur eskolak sustatu, bultzatu, kudeatu eta koordinatzea.

Lanbidedun independente batek aztertu ditu Haur Eskolen Organismoaren kontuak. Txostenak aldeko iritzia erakusten du, salbuespen batekin, patronatuaren kontabilitatea KPPOri egokitzearen ondorioz, orain arte erabilitako kontabilitate-irizpide batzuk aldatzea eragin duelako. Uniformitate printzipioaren aldaketa horrek eragina izan du hurrengo kontabilitate-multzoetan: kaudimengabeziarako probisioa, kapital dirulaguntzak, ibilgetua eta funtzionamendurako dirulaguntzak.

Hona 1996ko abenduaren 31ko balantzea eta 1996ko aurrekontu-exekuzioa:

(mila pezetatan)

AKTIBOA		PASIBOA	
Ibilgetu inmateriala	65	Norbere fondoak	134.647
Ibilgetu materiala	19.428	Epe luzeko zorrak	37.308
Zordunak	108.349		
Kontu finantzarioak	44.113		
<b>Guztira</b>	<b>171.956</b>	<b>Guztira</b>	<b>171.956</b>

Aurrekontuaren bilakaera:

(mila pezetatan)

Dirusarrerak	Aurre-kontua	Exekutaturikoa
Tasak eta bestelako dirusarrerak	104.323	119.367
Ohiko transferentziak	331.075	332.591
Aktiboan aldaketak	24.929	
<b>Guztira</b>	<b>460.327</b>	<b>451.957</b>
Gastuak	Behin-betikoa aurrekontua	Exekutaturikoa aurrekontua
Langileak	376.447	350.024
Ondasunak erostea	73.550	70.973
Ohiko transferentziak	1.300	1.203
Innbertsioak	9.000	8.898
<b>Guztira</b>	<b>460.327</b>	<b>431.098</b>

Aurrekontuaren exekuzioak 21 milioiko superabita duela ikus daiteke, sortu diren dirusarreraren -452 milioi- eta gastuen -431 milioi- arteko aldea.

Organismoa nolakoa den ikusirik eta kontuan hartuz lanbidedun independente batek auditorietza egin duela, ez dugu gehiago aztertu.

Hala ere, datu ekonomikoak eta arreta eman zaien umeen kopurua ikusirik, 595 alegia, beharrezkotzat jotzen dugu organismoak beste erakunde batzuekin alderatzeko datuak landu ditzala, kalitatea, zerbitzuaren kostua eta ateratako finantzaketa baloratu ahal izateko.

Horri bagagozkio, aurrekontu-exekuziotik ondorioztatzen den gastua hurrengo delata esan behar da:

$$\frac{\text{Likidaturiko aurrekontua}}{\text{Ikasle kopurua}} = \frac{431 \text{ M}}{595} = 720.000 \text{ pta./ikasleko}$$

eta tasen bidezko finantzaketak likidaturiko gastu-aurrekontuen ehuneko 28 egiten duela.

## VII.2. ENPRESAK

Bi erakunde autonomoz gain, Udalak gehien-go-partaidetza du Comiruña, Mercairuña eta ANIMSA enpresetan.

### VII.2.1. Comiruña.

Comercios Minoristas de Pamplona, SA (Comiruña). 1981ean eratu zuten Iruñeko merkataritza-azpiegiturari buruzko azterketak egiteko;

txikizkako merkatuak sustatu eta ustiatzeko eta merkataritza- eta elikadura-alorren garapenaren mesederako zerbitzuak emateko.

Iruñeko Udala da enpresaren jabe bakarra.

Hona 1996ko balantzea eta emaitza-kontua:

(mila pezetatan)

AKTIBOA		PASIBOA	
Ibilgetua	6.374	Norbere fondoak	71.503
Zordunak	2.961	Probisioak	2.782
Aldi baterako inber. finantz.	65.693	Epe luzeko hartzekodunak	7.216
Diruzaintza	15.455	Epe laburreko hartzekodunak	9.291
Doiketak	310		
Guztira	90.792	Guztira	90.792

Emaita-kontua:

(mila pezetatan)

GASTUAK		DIRUSARRERAK	
1.- Langileak	38.060	4.- Ustiapen-dirusarrerak	103.458
2.- Dotazioak	340		
3.- Bestelakoak, ustiapena	61.799		
5.- Ustiapen-mozkina (4-1-2-3)	3.259	6.- Dirusarrera finantzarioak	6.206
7.- Emaita finantzarioa (6)	6.206		
Ohiko mozkina (5+7)	9.466		
Ekitaldiko emaitza (mozkina)	9.466		

Langileak independente batek aztertu ditu kontuak. Txostenaren iritzia aldekoa da.

### VII.2.2. Mercairuña

Mercados Centrales de Abastecimiento de Pamplona (Mercairuña) 1974an eratu zuten. Haren xedea zen handizkako merkatuak sustatu,

eraiki eta ustiatzea; eta elikagaien merkaturatze-zikloa alde guztietatik hobetzea.

Iruñeko Udalak ehuneko 51eko partaidetza du. Gainerako akzioetan, Nafarroako Gobernuak ehuneko bederatzi du eta Mercasa enpresa nazionalak, gainerako ehuneko 40a.

Hona 1996ko balantzea eta emaitza-kontua:

(mila pezetatan)

AKTIBOA		PASIBOA	
Ibilgetua	207.048	Norbere fondoak	454.424
Zordunak	14.156	Probisioak	140.635
Aldi baterako inber. finantz.	365.319	Epe luzeko hartzekodunak	11.313
Diruzaintza	31.543	Epe laburreko hartzekodunak	12.128
Doiketak	432		
Guztira	618.499	Guztira	618.499

Emitza-kontua:

(mila pezetatan)

GASTUAK		DIRUSARRERAK	
1.- Langileak	62.755	4.- Ustiapen-dirusarrerak	127.744
2.- Dotazioak	12.728		
3.- Bestelakoak, ustiapena	35.350	6.- Dirusarrera finantzarioak	29.177
5.- Ustiapen-mozkina (4-1-2-3)	16.911		
7.- Emitza finantzarioa (6)	29.177	9.- Mozkina, ibilgetua saltzeagatik	100.000
8.- Ohiko mozkina (5+7)	46.089		
10.- Ohiz kanpoko emitza positiboak	100.000		
11.- Zergen aurreko mozkinak (8+10)	46.189		
12.- Sozietateen gaineko zerga	10.383		
13.- Ekitaldiko emitza (mozkina) (11-12)	35.806		

Lanbidedun independente batek aztertu ditu kontuak. Txostenaren iritzia aldekoa da.

### VII.2.3. ANIMSA

Asociación Navarra de Informática Municipal (ANIMSA) udalarteko sozietatea da. 1985ean eratu zuten Iruñeko eta Lodosako udalek. Gero,

beste batzuk sartu ziren eta 109 akziodun ditu egun. Iruñeko Udalak akzioen ehuneko 72 du.

Haren sozietate-helburua da informatika Nafarroako toki entitatetan sartu, kudeatu eta sustatzea.

Hona 1996ko balantzea eta emitza-kontua:

(mila pezetatan)

AKTIBOA		PASIBOA	
Ibilgetua	373.389	Norbere fondoak	22.811
Banatzeko gastuak	4.201	Banatzeko dirusarrerak	2.497
Izakinak	2.368	Probisioak	29.168
Zordunak	128.119	Epe luzeko hartzekodunak	340.535
Aldi baterako inber. finantz.	17	Epe laburreko hartzekodunak	165.584
Diruzaintza	51.621		
Doiketak	880		
Guztira	560.595	Guztira	560.595

Emaizta-kontua:

(mila pezetatan)

GASTUAK		DIRUSARRERAK	
1.- Kontsumoak	50.716		
2.- Langileak	253.188		
3.- Dotazioak	40.482		
4.- Bestelakoak, ustiapena	57.843		
6.- Ustiapen-mozkina (5-1-2-3-4)	2.363	5.- Salmentak	404.592
7.- Gastu finantzarioak	39.836	8.- Emaizta finantzarioak (negatiboa)	39.836
		9.- Ohiko Jarduk. galerak (8-6)	37.473
		10.- Ohiz kanpoko dirusarrerak	34.425
11.- Ohiz kanpoko gastuak	13.246		
12.- Ohiz kanpoko emaitza posit. (10-11)	21.179		
		13.- Ekitaldiko galerak (9-12)	16.294

Lanbidedun independente batek aztertu ditu kontuak.

Mugak eta salbuespenak erakusten ditu txostenak, sozietateak zuen egoeraren ondoriozkoak, batez ere. Hartara, 1996ko abenduan, sozietatea gainbehera zihoanez, "Berrabiatzeko Plana" onetsi zuen haren kontseiluak. Hurrengoak ditu funtsezko erabakiak:

- Jarduna sozietatearen helburua zorrotzago betetzera mugatu.
- Egitura birrantolatu.
- "Kudeaketa Kontrol"erako sistema berria ezarri.
- "Merkataritza Plana" abiarazi.

- Funtzionamenduko gastuak gutxitu.
- Erakundeen laguntza eskatu.

Argi dago sozietatearen geroa "Berrabiatzeko Plana" betetzean datzala, funtsean. Iruñeko Udalarentzako badago beste arrisku bat, sozietatearen bilakaeraren arrisku ekonomikoaz landa, ANIMSA delako udal informatikaren horniketa eta mantenimenduaz arduratzen dena.

### VII.3. ERRUKI ETXEA

Iruñeko Erruki Etxea gizarte-ongizatezko izatera duen entitatea da, hirugarren adinekoei laguntza ematea xede duena.

Hona 1996ko balantzea eta emaitza-kontua:

(mila pezetatan)

AKTIBOA		PASIBOA	
Ibilgetu inmateriala	1.232	Norbere fondoak	1.597.902
Ibilgetu materiala	533.913	Probisioak	102.680
Izakinak	993	Epe laburreko hartzekodunak	788.076
Zordunak	11.269		
Aldi baterako inber. finantz.	1.793.186		
Diruzaintza	148.075		
<b>Guztira</b>	<b>2.488.668</b>	<b>Guztira</b>	<b>2.488.668</b>

Cuenta de resultados:

(mila pezetatan)

GASTUAK		DIRUSARRERAK	
1.- Horniketak	110.468		
2.- Langileak	692.547		
3.- Bestelakoak, ustiapena	570.488		
		4.- Ustiapen-dirusarrerak	1.217.382
		5.- Bestelako dirusarrerak	99.179
		6.- Ustiapen-galerak (5+4-1-2-3)	56.942
		7.- Dirusarrera finantzarioak	174.991
8.- Gastu finantzarioak	49.402		
9.- Emaidza finantzario positiboa (7-8)	125.589		
10.- Ohiko jarduketan mozkinak. (9-6)	68.647		
11.- Ibilgetuko galerak	1.130		
		12.- Ibilgetuaren mozkinak	10.161
13.- Ohiz kanpoko emaitzak (12-11)	9.031		
14.- Ekitaldiko emaitza (10+13)	77.678		

Lanbidedun independente batek aztertu ditu kontuak. Txostenak aldeko irtzia dakar, salbuespen batekin, alegia, zerga-gorabeheraren bat izan daitekeela, ongizate-entitateei zerga-arau jakin bat aplikatzen zaizkien ala ez.

Erruki Etxeak 585 zaharrei egiten die arreta, eta batez besteko adina 82 urte da. Dirusarrerak aztertuz gero ateratzen da jarduera osagarrien dirusarrera gordinak ehuneko 59 direla, egonaldi-ondoriozkoak ehuneko 41 diren bitartean.

Ohiko jardueraren 1996ko emaitzak 57 milioiko galera egiten du, baina mozkin edo irabazi bihurtzen da ateratako emaitza finantzarioei esker.

Inbertsio finantzarioak eraikin berriak egiteko erabiltzeak eta korritu-tasak jaisteak emaitza-kon-

tuaren azken saldoaren aldaketa ekar dezake eta horrek finantzaketa-iturri berriak bilatu beharra dakar, auditoretzan eta kudeaketari buruzko oroitidazkian agertzen den bezala.

Hori dela-eta, udalaren gain eror daitezkeen betebeharrak aipatu behar dira. Udalak plan bat izan beharko luke Erruki Etxearen finantzaketan noraino sar daitekeen jakin ahal izateko.


Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**ERANSKINAK**

**I. ERANSKINA.- UDALEKO ORGANIGRAMA 1996ko ABENDUAREN 31n**



## II. ERANSKINA. UDALAK AURKEZTURIKO ALEGAZIO ETA IRUZKINAK

Iruñeko Udalaren 1996ko ekitaldiko fiskalizazioari buruzko behin-behineko txostena jaso eta hurrengo azalpenak eman behar ditugu:

**Lehena.-** IV. puntuak jasotzen du fiskalizazio-organoak Udalari buruz duen iritzia, eta haren edukia Txostenaren funtsezko ondorioen laburpentzat jo daiteke. IV.6 epigrafean, hain zuzen, egoera ekonomiko-finantzarioaz diharduen hartan, Iruñeko Udalaren 1996ko abenduaren 31ko egoera ahultzat jo dute. Ondoko orrialdeetan (xx. orrialdeko laugarren lerroaldean) aipatu dute Hiri-burutzari buruzko Lege berriaren aplikazioaren emaitzen mende dagoela, hein handi batean, Nafarroako hiriburuko udalaren etorkizun ekonomikoa. Horri gagozkiolarik egoki iruditzen zaigu baieztapen hori iritzia buruzko atalean sartzea, laburpenak osoago jaso dezan txostenaren edukia.

8. orrialdean aipatzen dira Kontuen Ganbararen aburuz udalak burutu beharreko ekintzak, azaldutako egoera ekonomikoari irtenbidea ematearren. Esan beharra dago azterketa teknikoak egin direla egoera bideratzeko, Bideragarritasun Finantzarioari buruzko bost urteko Plana eginez. Izan ere, 1997ko aurrekontuaren likidazioak 955 milioiko aurrezki garbi positiboa dakar.

**Bigarrena.-** 16. orrialdeko seigarren lerroaldean esaten da 1999ko urtea gako-urte dela, finantza-zama pilatuko delako. Horri buruz esan behar da pilaketa hori 1997ko abenduaren 12an konpondu zela, 3.470 milioi pezetako maileguak kontratatuz, 1995eko abenduaren 31n zegoen diruzaintza-gerakin negatiborako 1996ko azken aldera kontratatu ziren maileguak baldintza hobetoetan berriz finantziatzeko. Eragiketa horiek guztiak daude Bideragarritasun Finantzarioari buruzko Planaren baitan, auditoretza-txostenak zeharka aipatzen baitu, eta ohiko defizitari eta inbertsiokoei dagozkioen kopuruak banatuz egin dira.

**Hirugarrena.-** Kontuen Ganbararen aurreko txosteneko gomendioen jarraipenari buruzko VI.4. puntuan sartu da egiteke dagoela ibilgetuaren kontabilitate-balioen eta inbertsiokoen doiketa eta berdinkatzea. 37. orrialdean berriz ere agertzen da, egoera-balantzea aztertzerakoan. Horri buruz esan behar da 1997an Ondare eta Kontabilitate Departamentuak lanean ari direla sistema informatiko interaktiboa definitzeko, inbertsioko balioak eta kontabilitate-ibilgetukoak berehala egokitzeke. 1998ko ekitaldian ezartzeko asmoa dago.

**Laugarrena.-** VI.4 puntu horretan bertan esaten da zintzilik dagoela adierazleak prestatzea eta programakako aurrekontu-likidazioa aurkeztea. 1996ko aurrekontuan sartu ziren programetan zebatetsiriko helburu batzuk, eta 1997ko ekitaldian zehar lanean aritu dira adierazleak landu eta zenbatesten, Ekonomia alorrean, batez ere. Gainera, esan beharra dago, programakako aurrekontu-exekuzioa kontabilitate-programa informatikoan dagoela eta edozein momentutan eskura daitekeela. Alkateak onetsitako 1997ko likidazioak, hain zuzen, programakako exekuzio hori dakar.

**Bosgarrena.-** VI.5.3. puntuan aztertzen da udal kontuhartzailletza. Langileentzako ordainketen, dirusarreraren eta erakunde autonomoen kontuhartzailletzarik ez egitea dela-eta, Udaleko Kontuhartzailletzak berak egiaztatu du egoera behin eta berriz.

Arrazoiak aztertu eta gero, ondorioa atera dugu ikuskaturiko ekitaldian zeuden baliabideekin aurreko kontuhartzailletza besterik ezin zela egin. Erraz egiazta daiteke hori, gaur egun, erdi mailako hiru tituludunek aurreko kontuhartzailletza besterik ez dutelako egiten, halako moldez non langile gehiago ere jarri behar izan den lantegi horretan espedienteak pilatu diren aldietan (ez bakarrik ekain-abenduan). Kontuen Ganbarak 1993ko kontuei buruz egin zuen txostenak berak jaso zuen hori. Ez da aiantzi behar departamentuak ez zuela goi mailako teknikaririk izan, 1.993an ez bezala, eta plantilari administrari laguntzaile bat besterik ez zitziola gehitu.

Horri gagozkiolarik, Kontuhartzailletza departamentuak, Udaleko beste departamentuen antzera, aurrekontu, helburu eta beharrezko baliabideei buruz urtero aurkezten duen dokumentuan agertzen denez, azken ekitaldiotako helburu dira dirusarreraren, langileen ordainketen eta erakunde autonomoen fiskalizazioak, giza-baliabideak emendatzeko eskariarekin batera, azken urteotako jardunak argi eta garbi erakutsi duelako ezinbestekoa dela aipatu helburuak betetzeko.

Gai hori are garrantzikoago da kontuan hartzen badugu Kontuhartzailletzak 1997tik aitzina gero eta partaidetza handiagoa izan duela barne jardueretan eta espediente batzuetan, eta osoko kontuhartzailletza egin beharra dagoela, laginketaren bidez, aurreko kontuhartzailletza mugatuko sistema berriaren ondorioz.

Era berean, aurretik esan dugun guztia erabat aplikatu dakioke VI.5.3 puntuko hirugarren gomendioari, Kontuhartzailletzak bere baliabideekin aurre



egin behar badio hor aipatzen diren azterketak eta lanak egiteari.

**Seigarrena.-** Langileen gastuen 1. kapituluaren azterketaren barruan sartu dute, gomendio gisa, nominei buruzko bestelako programen informazioa jasotzea. Horri buruz aipatu behar da kudeaketak egiten ari direla nominentzako beste programak nola ari diren ikusteko. Izan ere, nominez arduratzen den Zerbitzu Orokorren alorretik programa berri baten erakusketara joan dira, eta beste bitara joateko asmoa ere badute. 1998an erabakiko da, aurreko erakusketak ikusi eta programak baloratu ondoren, programa berria jarri –aurretik kontratatuko delarik, lehiaketa publikoa erabilia, dagozkion betebeharrekin– ala egungo programa beharizan berriei egokitzea. Zerbitzu Orokorretako alorraren arabera, erabakiak 1998ko irailerako behar luke, erosketa egitea erabakiz gero 1999rako Aurrekontuan sartu ahal izateko. 1999an ezar daiteke programa berria. Dagoen programa egokitzea erabakiz gero, 1998an has daitezke horretan, eta 1999an bukatu.

**Zazpigarrena.-** 35. orrialdean gomendia sartu dute “benetan aterako diren kopuruak sartzea aurrekontuan, aurrekusiaren eta exekutatuaren arteko alde handiak agertzea saihesteko”.

Aipatu desbideraketa hurrengoaren ondoriozkoa da, txostenean bertan aipatzen denez: “... 2.100 milioi jarri ziren aurrekontuan hiriburutza-agiria ezarriko zelakoan eta 570 milioi besterik ez zen aurreikusi Saneamenduari buruzko Legearen ondorioz”.

Horri buruz esan behar dugu arazoa konpondu egin dela, saneamenduaren ondoriozko dirusarrera desagertu eta haren ordeztasun hiriburutza-agiriaren ondoriozkoa jarri dutelako. 1998rako aurrekontuan ikus daiteke hori.

**Zortzigarrena.-** Txosteneko 38. orrialdean adierazi dute zordunen kudeaketan zorrozatasuna erabili behar dela, hutsegindakoak eta preskripzioak saihesteko. Dirubilketa eta Diruzaintza departamentuak lan handia egin zuen 1997an saldoak garbitzeko. Txostena ere erantsi zion, arrazoiak aipatuz. Kontuan izan bedi preskripzioen zatirik handiena trafiko-isunei zor zaiela, preskripzio epe laburrak dituztelako (urte bete) gainerako zorrek konparatuz gero (bost urte). Beste alde batetik, garbiketen azken helburua da kudeaketa betearazlea errentagarri egitea, hainbat arrazoiengatik kobratu ezin diren kopuruak kobratzeko ahaleginik ez alferrik galtzeko.

Iruñean, 1998ko apirilaren 7an

## **Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzeko.**

### *BEHIN BETIKO IZENDAPENA*

Nafarroako Kontuen Ganbarako Lehendakariak 1997ko martxoaren 17an emandako erabakian onetsi zuen Ganbara horretako kontu-ikuskaritzako teknikari lanpostua oposizio-lehiaketaz betetzeko deialdia. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 1997ko apirilaren 4ko 41. zenbakian argitaratu zen gero. Aipatu deialdiaren 12. oinarriak ezarri du, praktika aldia bukatu ondoren, izangaiak gai kalifikazioa atera baldin badu, Kontuen Ganbarako lehendakariak funtzionario izendatuko duela, behin betiko, eta izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela.

Aurrekoa kontuan hartuz, praktika aldia bukatuta eta Kontuen Ganbarako langileei entzun ondoren María Asunción Olaechea Estanga kontu-ikuskaritzako teknikari andreak nola aprobetxatu duen aipatu deialdiko 11.3 oinarriak eza-

rritako aldi hori, Lehendakaritza honen hurrengo erabakia eman du:

**Lehenengo.** María Asunción Olaechea Estanga izangai andreari gai kalifikazioa ematea burutu duen praktika aldirako.

**Bigarren.** María Asunción Olaechea Estanga andrea Nafarroako Kontuen Ganbarako funtzionario izendatzea, behin betiko, kontu-ikuskaritzako teknikari mailarekin.

**Hirugarren.** Izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 1998ko uztailaren 29an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--